

txintxarri



Festa lehertzean! #sanpedroak2018



Ges

ASEGURUAK

Ondo pasa jaietan!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





Ondo pasa jaietan!



Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

Cristal

Molde Cristal

Parisien

Txabola

Mendiko

Txapeldun

Leña ligth

Espelta

Vital

Artoa

Salud

Artoa zerealekin

Aleman

Molino

Verde

Espelta zerealekin

Ogicol

Kurkuma, intxaurreak eta mahaspasak



Bila zabilzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!

Mobilizatzen jarraituko dute pentsiodunek, udan

Pentsiodunek Lasarte-Oriako kaleak bete dituzte, beste behin. Eguraldi txarrari jaramonik egin gabe, pentsio duinen aldeko aldarriak zabaldu dituzte lau haizetara. Iragarri dute udan zehar mobilizazio gehiago egingo dituztela: "Ez da ezer aldatu"

Iñigo Gonzalez

Kaleak bete dituzte Lasarte-Oriako pentsiodunek, beste behin; oraindik erretiroa hartu ez duten hainbat herritarrek ere bat egin zuten larunbateko manifestazioarekin. Ehunka pertsonak zabaldu zituzten lau haizetara pentsio duinen aldeko aldarriak. Eta ez dira azkenak izango: udan zehar "mobilizazio gehiago" egingo dituela iragarri du Lasarte-Oriako koordinakundeak.

Espaloian daudenak, errepidera!, izan zen manifestazioan zehar gehien entzun zen oihuetako bat. Gaur egun erretiratuta dauden andre eta gizonek piztu dute aldarri sozial honen txinparta, baina behin eta berriro errepikatzen dute borroka hau ez dela eurena bakarrik. Orain borrokatu, etorkizuneko pentsioak bermatzeko. Ideia hori islatu zuten elkarretaratzean erakutsi zituzten afixetan: *Gaurko eta biharko pentsioengatik*, zioen horietako batek. Beste hainbat mezu ere zabaldu zituzten. Esate baterako, eskatu zituzten 1.080 euroko pentsio minimoak. Alderdi politikoentzako abisu garrantzitsua: *Pentsioak ukitzen dituenak ez dauka nire botoa*.

Udan ere, mobilizazioak

San Pedro eliza atzeko plazan elkartu ziren manifestariak, 12:00etan. Koordinakundeko kideek gidatu zuten jendetza: ilaran jarri, eta Zumaburu aldera joan ziren denak, protestan. Buelta eman zuten, eta Kale Nagusia zeharkatu, gero. Pablo Mutiozabal kaletik sartu ziren ondoren; Geltoki kalea zeharkatu, eta, azkenik, Okendo plazara iritsi ziren.

Manifestu bat irakurri zuten bertan. "Oraingo ez dugu ikusi aldaketari pentsioen aferan, eta, horregatik, pentsio duinen alde protesta egiten jarraituko dugu". Udan zehar segituko dute.



Ehunka herritarrek eskatu zituzten pentsio duinak larunbatean. TXINTXARRI



Etkezarreta familiako hiru belaunaldik hartu zuten parte manifestazioan. TXINTXARRI

Datorren ikasturterako ere badituzte planak: adineko pertsonen eguna ospatzen da urriaren leian, eta, larunbatean iragarri zuten, irail hasieran bilera bat egingo dute elkarte guztiek. Helburua da "mobilizazio handi bat" egitea.

Protesta ekintza amaitu aurretik, koordinakundeko kideek Etkezarreta familiari pasa zioten mikrofonoa. Hiru belaunaldik hartu zuten parte manifestazioan:

aita pentsioduna da; alaba, langilea; biloba txikiak, etorkizuneko langile eta pentsiodunak. "Arazo hau ez da oraingo pentsiodunena bakarrik, ondorengoena ere bai", adierazi zuten aitak eta alabak. Txalo artean hartu zituzten manifestariak euren esandakoak. Hurrengo mobilizazioko txalo zaparrada are ozenagoa izatea espero dute; espaloian dabilzan herritarrek errepidera joaten hasi beharko dute hori lortzeko.



Sanpedroen aurreko egunak berotzen ditu San Joan suak, urtero. TXINTXARRI

Urteko gauza txarrak erretzeko hitzordua bihar, Andatza plazan

San Joan suaren inguruan bilduko dira lasarteoriatarak bihar gauean, Andatza. 22:00etan piztuko dute sua

Txintxarri

San Joan suen garrek ziztu bizian erretzen dituzte ikasleen apunte, koaderno eta paperak. Denbora ere azkar batean pasatzen da, eta, konturatzerako, ate joka ditugu aurtengo sanpedroak. Aurreko egunetan hainbat ekintza antolatzen dira, jaietarako motorrak berotzeko. Jendetsuena izaten da San Joan sua. Azken urteetan bezala, Andatza plazan elkartuko dira lasarteoriatarak, urteko gauza txarrak sutara botatzeko eta udari ongietorri beroa egiteko.

San Joan suaren garrek biharko gaua argitu aurretik, kalejira jendetsuan abiatuko dira Andatarantz, udal korporazioko hainbat kide barne. Udaletxe zaharrean jarri dute hitzordua, 21:30ean. Talde argazkia aterako dute, oinei eta gorputzari eragiten hasi aurretik. Txistulariek jarriko dute erritmoa, eta Kale Nagusia zeharkatu ostean iritsiko dira plazara. Erketz EDTko dantzariak ere hartuko dute parte kalejiran. Zero-Sette akordeoi orkestrako eta Alboka abesbatzako kideek Andatza bertan itxarongo diete.

Suaren ingurura iritsi eta gero, San Joan zortzikoa eta sokadantza plazaratuko dituzte kalejirako partaideak; arretaz jarraituko dituzte euren urratsak ikus-entzuleek. Eta, ondoren, 22:00etan, gaueko momenturik ikusgarriena: sua piztuko dute udal ordezkariak.

Jatorri paganoa du San Joan jaiak, baina kristautasunak bere

egin zuen, beste festa askoren moduan, San Joan Bataiatzailearengatik izen hori jarrita. Euskal Herrian lau haizetara zabaldu da usadioa, eta herri guztietako plaza nagusietan pizten dira suak.

Jokoak eta erakustaldiak

Sua itzali eta ondorengo egunetan ere hainbat ekintza egingo dira herrian. Esaterako, 25ean, zunba eta gimnastika erakustaldiak egingo dituzte Biyak Bateko kideek. Isla plazan lehena, 17:00etan; bigarrena, 18:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian.

Egunotako ekitaldiak

Gaur

- **16:00etan:** Bote, toka eta igel jokoak Biyak Bat jubilatuko elkartearen.

Bihar, ekainaren 23a

- **21:30ean:** Udaleko korporazioa Andatza plazarantz abiatuko da; udaletxe zaharretik aterako dira. Erketz EDT dantza taldea, Alboka abesbatza eta Zero-Sette akordeoi orkestra izango dira. Hainbat dantza plazaratuko dituzte, sua piztu aurretik.
- **22:00etan:** San Joan sua piztuko dute plazan.



Larunbat eguerdiko motor erakusketak ikusmina piztu zuen, eta hainbat herritar hurbildu ziren Okendora. TXINTXARRI



Motorzaleek 60 kilometro inguruko irteera egin zuten larunbat eguerdian. Okendo plazatik atera ziren. TXINTXARRI



Goian bi motorzale, irribarretsu; Pontxo Morales eta Tomas Arruti, txalaparta jotzen. TXINTXARRI

Motor hotsak eta erregai usaina, asteburuan zehar

Motorzaleen bilgune izan da Lasarte-Oria, laugarren urtez. Hamaika ekitaldiz osatutako egitaraua prestatu du Euskadiko Scooter Club elkarteak, eta, eguraldia guztiz portatu ez bada ere, Vespa eta Lambretten motorrek ohi bezela egin dute orro herriko kaleetan

Iñigo Gonzalez

Ibilgailu dotoreak, motor hotsak eta erregai usaina izan dira ekitaldiz betetako azken asteburuko protagonistak. Ez dira izan bakarrik, baina oso presente egon dira ostiraletik igandera bitartean. Vespa eta Lambretten laugarren topaketa antolatatu du Euskadi Scooter Club elkarteak, eta motorzaleek ez dute hutsik egin. Estatu osotik etorritako gidarien bilgune izan dira Lasarte-Oriako kale eta errepideak.

Larunbat eguerdian elkartu ziren motorzale gehienak, Okendo plazan. Oso goibel esnatu zen eguna, eta euri dezente egin zuen. Zorionez, eguerdi partean atertu, eta inor ez zen gehiago busti. Herritar ugari animatu ziren gidarien Vespa eta Lambrettak gertutik ikustera. 12:30ean, pentsiodunen manifestazioa bukatu eta berehala, 60 bat kilometroko irteera egin zuten motorzaleek. Okendo plazatik irten eta

Donostiarantz abiatu ziren, herrira bueltatzeko gero. Eguerdi partean motor hotsak are ozenago entzun ziren herrian: *Wheels and waves* motor jaialdia ospatu zen hipodromoan, eta motorzaleek errepideak hartu zituzten. Harley Davidson eta antzeko motorrak erakutsi zituzten. Vespa eta Lambretta gidarien irteerarekin topo egin zuten askok. Etengabea izan zen burrunba.

Bazkaria eta kontzertuak

Hernaniko Jauregi jatetxean bazkaldu zuten motorzaleek. Bapo jan eta gero, sariak eta oroigarriak banatzeko txanda iritsi zen. Bukatzean, Lasarte-

Oriara bueltatu ziren motor hotsak eta erregai usaina; Zumaburu auzoko Andapa kalera, hain justu. Vespa eta Lambrettak bertan aparkatu, eta erakusketa egin zuten pare bat orduz.

Eguzkia ezkutatzearekin batera hasi ziren musika eta kontzertuak, Buenetxea taberna inguruan. Ragtones taldearen blues doinuek girotu zuten gaua. Gaueko ordu txikietara arte luzatu zuen festa batek baino gehiagok. Andoni eta Rudy Garcia DJak arduratu ziren musikaz.

Igandeko bermuta Arkupe tabernan hartu zuten motorzaleek. Eguraldi ezin hobea lagun, distira berezia zuten Vespek eta Lambrettek. Asteburu osoan motorrak ikusi ezin izan zituzten lasarteoriarrek ez zuten ibilgailuak gertutik ikusteko aukera galdu. Bakoitza bere etxera bueltatu baino lehen, Extremeña elkartearen egin zuten bazkari legea. Atsedean hartzea dagokie orain, baina gogoz daude bosgarren ediziorako.

**EHUN MOTORZALE
INGURU ELKARTU
ZIREN LASARTE-ORIAN,
IRAGAN OSTIRALETIK
IGANDERA BITARTEAN**

Etxebizitzetan igogailuak jartzeko diru laguntzak

Udalak 200.000 euroko diru sorta bat prest du, etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko lanak laguntzeko. lazko eta aurtengo obren aurrekontuaren %20 finantzatu dute, 10.208 euroko gehiengo gaitzen ez badu, igogailuen kasuan

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udala lanean ari da herriko inguru guztiak egokitzeke, oztopo arkitektonikoak kentzeko igogailu eta aldapatxo bidez. Baina norbanakoei zuzendutako diru laguntza sorta bat ere abian jarri du, etxebizitzetan ere oztopo horiek gaitzen laguntzeko. Guztira, 200.000 euroko diru sorta prest du udalak, 2017-2018 ikasturtean egin diren obrak laguntzeko.

Jesus Zaballo alkateak eta Agustin Valdivia Hirigintzako zinegotziak aurkeztu dute ekimena. "Jendea animatu nahi dugu obra horiek egitera, mugitzeko zailtasunak dituztenen bizi kalitatea hobetzeko", azaldu du Zaballosek. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak ematen dituenarekin bateragarriak dira.

Iaz zen diru laguntza ateratzekoa, baina atzeratu egin da. Horregatik, 2017an amaitu ziren obra guztiek izango dute aukera horiek eskatzeko. 2018. urtea ere kontutan hartuko dute, baina lanak urriaren 31 baino lehen amaituak egon beharko dira. 100.000 euro iaz eginiko egokitzapenezako gordeko dituzte, eta beste zatia, aurtengoei.

Hiru lerro ditu laguntzak. Denetan aurrekontuaren %20



Zaballo eta Valdivia, diru laguntzaren aurkezpenean. TXINTXARRI

finantzatu da, baina gehienez ondorengo diru kopurua emango dute: batetik, igogailuak jartzeko 10.229 euro; bestetik, aldapatxoak jartzeko 1.803 euro; eta, azkenik, aulki gurpildunak garraiatzeko plataformak eraikitzeke 3.603 euro.

Etxebizitza komunitate bakoitza hiru lerroetara aurkez daiteke. Alegia, laguntzak komunitate bakoitzari emango

zaizkio, ez norbanakoari. Gainera, berdin-berdin eskatu ahal izango da egokitzapen horiek jartzeko laguntza Eusko Jaurlaritzari. Ez dira kontutan hartuko norberaren diru sarrerak.

Laguntza horrekin etxeetan egokitzapenak egitea sustatu nahi du udalak. "Erraztasunak eman nahi ditugu, irisgarritasuna hobetzeko", adierazi du Zaballosek.



EH Bilduko ordezkariak, Villa Mirentxun eginiko agerraldian. TXINTXARRI

Saltoki handiei jarritako moratoria txalotu du EH Bilduk

Merkataritza guneen hedapenarengatik "kezka" agertu dute Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ordezkariak

Txintxarri

Irundik Usurbilera arteko lur eremuan 206.000 metro karratu hartzen dituzte saltoki handiek. Eta EH Bilduk ohartarazi duenez, erabakiak azkar ez badira hartzen azalera hori bikoiztu dezakete. Joan den astean Eusko Legebiltzarrak hiru hilabeteko moratoria bat ezartzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, Lurraldeko Plan Sektorial berria onartu artean. "Txalotu eginen dugu erabakia. Lasterketa zoro honekin amaitu behar da".

Lasarte-Oria eta Usurbilgo EH Bilduko ordezkariak agerraldia egin dute, merkataritza gune handien hedapenak "kezkatuta". Haien ustez, egoera "paradoxikoa da", bat ez datorrelako "nabarmetzen ari den ereduaren krisiarekin". Izan ere, gune horietako asko ixten ari dira.

Haatik, Lasarte-Oria inguruan hainbat proiektu jarri dituzte martxan. EH Bilduren ustez, "presazko tramitazio horiek" ezegonkortasuna sortuko dute. "Linbo juridiko honekin amaitu behar da". Horregatik, alderdiak legebiltzarraren erabakia txalotu du, eta espero du herri inguruan ezartzekoak diren multinazionalen proiektuak gerazte, "marko berri bat egon arte".

Egunotan dendari txikien aldeko eskuorriak banatuko dituzte, herriarrak informatzeko. Haien esanetan, berebizikoa da saltoki handien eta dendari txikien orekari eustea. "Merkataritza txikia sektore estrategikoa da, ekonomiari bete-betean eragiten dio". Udaletatik saltoki handien hedapena baldintzatu daitekeela azaldu dute, udal ordenantzen bidez.

Kantuan amaitzeko

Ikasturtea ongi amaitu dute Xumelakoek, hasi zuten bezalaxe: kantuan. Ondoren, abesbatzako 70 kideak afaltzera joan ziren. Halere, ikasturtea amaitu arren, badute oraindik zer abestu. Festetan kantu-jiran arituko dira Lasarte-Oriako kaleak alaitzen. Aurten hogeitabat ekitalditan parte hartu du abesbatzak, Euskal Herrikan kanpo horietako batzuk.



TXINTXARRI

Udalak etxebizitza bat eskaini die 'Aquarius'-ekoei

Lasarte-Oriako Udalak etxebizitza bat eskaini du *Aquarius* itsasontziko familia bat jasotzeko. Orain urtebete Siriako gerratik ihesi joandako familia batekin egin moduan, Eusko Jaurlaritzaren, EUDEL-en eta FEMPen esku utzi du etxebizitza bat.

Aquarius ontzian 630 errefuxiatu egon dira itsasoan nora ezean. Italiako eta Maltako

portuetarako sarbidea ukatu diote, eta azkenean Valentzian lehorreratu dira.

Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuen %10 hartzeko konpromisoa hartu du. Horietako familia bat etorri daiteke udalak utzitako etxebizitzara.

Udalak oroitarazi du Lasarte-Oria "herri abegikorra" dela, herritarren idiosinkrasiak eta aberastasunak erakusten duen moduan. "Arrazoi askogatik etorri da jendea Lasarte-Oriara bizitzera".

Mahaiaren bueltan itxi du denboraldia LOKE klubak

Zubietako Irigoien jatetxean bapo bazkaldu, eta aurtengo denboraldiari agur esan dio LOKE kirol elkarteak. Euren kirol ekitaldiak ez dira guztiz bukatu, ordea: erakustaldia eskainiko dute judokek bihar goizean, 10:30ean, Maialen Chourraut kiroldegian

Iñigo Gonzalez

Sabela ongi beteta esan dio agur aurtengo denboraldiari LOKE kirol elkarteak. Kirolari, guraso eta entrenatzaile, ehun bat pertsona elkartu ziren Zubietako Irigoien jatetxean. Frijituak, oilasko errea entsalada eta patatekin, eta, digestioa ongi egiteko, izozki goxoa. Ondoren, alor bakoitzeko arduradunek sariak banatu zituzten. Xabier Gonzalez zenaren alaba Andreak eta Ander Aristi bikoteak aitortza xume baina hunkigarria jaso zuten ondoren, plaka eta guzti.

Kirol ekitaldiak ez dira bukatu oraindik, ordea. Gorka Aristegik prestatzen dituen judokek erakustaldia eskainiko dute bihar goizean, Maialen Chourraut kiroldegian. Entrenatzeko erabiltzen duten gela txikia denez, tatamiak goiko pisuko kantzara eramango dituzte. 10:30ean hasiko dira lanean. Kirolarien guraso eta lagunek kiroldegiko harmailak beteko dituzte aurten ere.

Itxura antzekoa hartu zuen kiroldegiko kantxak joan den larunbat arratsaldean. Maite Ruedaren ardurapean entrenatzen duten gimnastek hiru ordu inguruko erakustaldi ederra eskaini zuten; guraso eta lagunek arretaz jarraitu zituzten kirolarien koreografiak, eta, dantza bakoitza

amaitzean, gogotik egin zuten txalo, gimnasten lan ona eskertuz. Barkakako eta taldeko saioak eskaini zituzten LOKEko gimnastika erritmiko saileko neskek.

Bazkari goxoa, eta sariak

Igandean bazkaltzen amaitu eta gero, sail bakoitzeko entrenatzaileek hartu zuten hitza, kirolariei denboraldi bukaerako sariak emateko.

Tenisa irakasten du Mariasun Yurritak, eta urtetik urtera jokalaria gehiago ditu. "Oso pozik nago tenislari guztiek emandako mailarekin". Saria pertsona bakar bati eman diezaioke, ordea; Paula Alonso jokalaria gaztetxoari ematea erabaki du. Pozarren eta ilusio handiz jaso zuen oroigarria Alonsok. Ikasleak eta irakasleak argazkia ere atera zuten elkarrekin, irribarretsu.

Gimnastika erritmikoko kideek hartu zuten lekukoa eta mikrofonoa. Gimnastek bakarka

ERAKUSTALDI EDERRA ESKAINIZ BUKATU DU AURTENGO SASOIA LOKEKO GIMNASTIKA ERRITMIKO SAILAK

eta taldeka egindako lana nabarmendu zuen Amaia Calvo entrenatzaileak: "Zilarrezko domina jantzi du Garazi Gomezek Euskadiko txapelketan; senior A mailako taldeak, berriz, brontzekoa". Halere, aurtengo saria eskolarteko infantil mailako taldeari ematea erabaki dute prestatzaileek. "Ezin izan dute euren maila onena erakutsi, baina etorkizun handiko kirolariak dira".

Oraineko eta etorkizuneko judoka trebe asko entrenatzen ditu Gorka Aristegik. Batzuek hainbat urte daramatzate berarekin; sasoiak joan eta etorri, maila bikaina mantentzen dute, eta domina asko irabazten dituzte. Esate baterako, Asier Sagastik, Josu Olmosek eta Fermin Baldak. Hiruak saritu zituen Aristegik. Gaztetxoagoak dira Aritz Urdangarin eta Lucas Morales, baina ederki aritu dira aurten. Eurak ere deitu zituen prestatzaileak. Seigarren eta azken saria Almi Camposek jaso zuen: aurten hasi da judoa egiten, eta hainbat domina kolporatu ditu honezkero.

Denboraldi paregabea eginda hartuko dituzte oporrak zenbait kirolarik. Beste askok lehiatzen segituko dute hilabeteotan.



Gimnastek erakustaldi ederra eskaini zuten Maialen Chourraut kiroldegian. TXINTXARRI



Andrea Gonzalezek eta Ander Aristik aitortza hunkigarria jaso zuten. TXINTXARRI



LOKEko saritu eta entrenatzaileak, irrifartsu. TXINTXARRI

Buenetxea eta Patricio Bar Cocktail, ikurrinaren bila

Amaitzean dago herriko areto futbol txapelketa; finalak bihar, larunbatean, jokatu dituzte. Buenetxea eta Patricio Bar cocktail Bar egongo dira aurre aurre aurtengo final handian. Ligaxkan talde indartsuenak direla erakutsi dute, lehenengo eta bigarren sailkatu baitira, hurrenez hurren. Finalerdietan ere ez dute hutsik egin.

Kontsolazio faseko finala ere jokatu dute Maialen Chourrauten, larunbatean. Izen Gabe eta Asador Irigoienek jokatu dute, 16:30ean. Gero, 17:45ean, izango da final nagusia.


Ondoren sari banaketak izango dira. Ondoko sariak banatuko dituzte: gol gutxien jaso dituen taldea, gol gehien sartu dituen jokalaria, finaleko jokalaria hoberena, kontsolazio txapelketako eta txapelketa nagusiko txapelkunordea eta txapelketa.

Gipuzkoako bi txapelak etxera

Gipuzkoako Errepide Txapelketa irabazi zuen larunbatean Zestoan Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Asier Pozok, talde lanari esker. Beñat Carbayeda laugarren izan zen, eta Jaime Romero hamabosgarren. Biak ihesaldian sartuak egon ziren. Igandean, berriz, erlojupeko txapelketa eskuratu zuen Pozok, sei kilometroko ibilbidean.



SAN PEDRO JAIETAKO BEREZIA



Sanpedroak, euskara... eta agintekeriak



Joxe Mari Agirretxe

Zabaletako jai indartsuak joan ziren, eta sanpedroak badatoz. Eta pozik nago! Su Ta Gar, La Basu, bertsolariak, Sorgin Jaiak, kantu-jira, afariak... eta alaitasun partekatua! Pozik nago jaietan...eta pozik urte osoan. Izan ere, inguruetako herrietako bizilagunek diotenez, Lasarte-Orian beti dago jai giroa, beti dago "zerbait". Azken urteotan asko aldatu omen da gure herria; euskara gehiago entzuten da kalean, indartsu sumatzen dute bertako auzolana; behetik gora goaz... Eta egia da hori dena. Azken urteotan, lasarteoriarrei esker ekimen berri pila jaio dira, eta aurretik ginena osatu dute; bertsolaritza,

Jalgune, antzerkia, dantza garaikidea eta plaza dantzak, korua, batukada, Literatur Txokoa, ipar martxa... Honetaz guztiaz gain, mugimendu feminista, pentsiodunak, Gure Esku Dago ekimena, Altsasu... Denetarik dugu, eta asko eta asko euskaraz!

Euskal Herria sudur gorriarekin zeharkatzen dugunean, harro hitz egiten dugu Lasarte-Oriaz; nola "han" edo "hemen" jaiota, gai izan garen elkarrekin pausoak ematen, nola "batekoak" eta "bestekoak" euskara erdigunean jartzeko gai izan garen... Hor dira ere Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, euskaltegiak, herri ekimenarekin batera lan eginez... Eta nola ez, Ttakun Kultur Elkartearen lana azpimarratu behar dut, eta honek dinamizatutako kultur jarduerak, Maratoiak, TXINTXARRI, Mintzalagun, Faktoria, Kuadrillategi, Gazte Kluba, txokoak...

Baina Lasarte-Oriako ahobiziak eta belarriprestak Euskal Herri osora zabaldu diren honetan, Euskaraldiaren atarian... sudurgorriok ez dakigu nola azaldu gure herriko udal agintariak azken aldi honetan hartzen ari diren erabaki ulertezinak. Nola azaldu gure mugetatik kanpo erreferentea den Ttakunek sortutako udako txokoak honi kendu eta merkeago (eta eskaxago) eskainiko dituen enpresa bati ematea? Nola ulertu herrigintzarekin egunerokotasunean bustitzen den elkarte baztertua? Muxutruk, ilusioz, isilean... lana egitea tokatzen denean, nork aterako ditu babak eltzetik? "Herria da gorputza, hizkuntza, bihotza!", eta gure agintariek, hara, ez buru eta ez hanka!

Hala ere, goza ditzagun jaiak, goza dezagun udara, pozik egoteko moduko herria dugulako! Espero dezagun halakorik berriz ez gertatzea. Eta etorkizunari begira jarrita, elkartu, hausnarketa egin, mahai baten bueltan eseri, hitz egin, adostu eta behetik gora honaino ekarri gaituen elkarlanari berriz bide eman.

Txiiiiissspuuuun, gora San Pedro! Eta gora LasarteOria alai eta euskalduna!



Hurrengo
zenbakia

txintxarri

Uztailaren 6an

2018ko San Pedro jaietako argazkiak

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbix Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artetxe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas, Joxe Mari Agirretxe.

Banatzzaileak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Maialen Goikoetxea.

Informatikoa

Behiñ Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



SAN

Lasarte-Oriako Udalak elkartean laguntzaz egitarau zabala antolatu du 2018. urteko San Pedro jaietarako. Ekainaren 28an, haur txupinak eztanda egin ostean, musika, festa eta algarak hartuko ditu herriko kaleak. Aurten Erketz EDTko gaztetxo eta helduek botako dituzte txupinak.

P

E

D

R

O

J

A

A

K

K



ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



Garbiketa sakon eta erosoena, Rowenta erratz-xurgagailuarekin

- 'Air force all in one' kablerik gabeko erratz-xurgagailua.
- Eskuzko xurgagailu bilakatu daiteke.

Eskuzko lurrin eskuila opari!



> Lixatu zure alkondarak azkar eta bertikalean!

Ondo pasa jaietan!

Ekainak 22, ostirala**16:00**

Pote, igela eta toka jokoak jubilatuen elkarteko kideentzat, Isla plazan.

Ekainak 23, larunbata**21:30**

Udaleko korporazioa Udaletxe zaharretik abiatuko da, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Andatza plazarantz, eta han San Joan zortzikoa dantzatu eta soka-dantza egingo dute, Alboka abesbatzaren eta Zero-Sette akordeoi-orkestraren laguntzarekin.

22:00

San Joan sua piztea, Andatza plazan

Ekainak 25, astelehena**11:00**

Zumba erakustaldia egingo dute Biyak Bateko jubilatuek, Isla Plazan.

17:00

Birziklatu proiektuko jolas eta eskulanak, Okendo plazan.

18:00

Gimnastika erakustaldia egingo dute jubilatuen elkarteko kideek, Maialen Chourraut kiroldegian.

Ekainak 26, asteartea**18:00**

Biyak Bat koruaren emanaldia, Atsobakar zahar-etxean.

**Ekainak 27, asteazkena****18:00**

Jokoetako trofeoan banaketa eta luncha, Biyak Bat erretiratuen elkartean.

20:00

Alboka abesbatzaren kontzertua, Ama Brigitarren komentuan.

Ekainak 28, osteguna**10:00-12:00**

Uretako festa kiroldegian, 5etik 12ra urteko neska-mutilentzat. Parte-hartzaileek igeri egiten jakin behar dute.

11:00

Udal Musika-Eskolako trikitilariak kalejira egingo dute, Manuel Lekuona kulturetxetik abiatuta, herriko kaleetan barrena, eta udaletxe zaharreko arkupeetan amaituko dute.

12:00

Haurren Txupinazoa. Jaiei hasiera emango zaie Erketz EDTko dantzari txikien pregoiarekin. Udaletxetik haurren txupinazoa jaurtiko da, eta erraldoi eta buruhandien konpartsa abiatuko da, Oriako Txaranga eta Oaintxe in deu Txaranga lagun dituztela.

12:15

Gure Patxintxi lehiaketa. Lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie, Udalbatzar aretoko balkoietan.

12:30

Reziklator, Okendo plazan.

13:30

Oriako Txarangarekin kalejira Atsobakarreraino, udaletxe zaharretik abiatuta.

14:00

Haurren herri-bazkaria, Atsobakarrekoko parkean.

15:00

DJ eta holi festa, Atsobakarrekoko parkean.

16:30

Sorgin Dantza abiatuko da Oriatik, eta Okendo Plazan amaituko da.

18:00

Biyak Bat koruaren eta Mutrikuko Anaiarte Biltokia koruaren ekitaldia, Ama Brigitarren komentuan.

18:00

Oaintxe in deu Txaranga herriko kaleetatik barrena.

19:00

Txupinazoa, eta Erketz EDTren pregoia, udaletxeko balkoitik, Okendo Plazan, Ori eta Oaintxe in deu txarangen partaidetzarekin.

19:30

Los Fonotarecos, Okendo Plazan.

21:30

Zikiro afari tradizionala, Okendo Plazan.

23:00

Beteranoen danborrada, Oriako Txaranga lagun dutela, Okendo Plazatik abiatu eta herriko kaleetan barrena.

00:00

DJ La Basu, Okendo plazan

00:00-01:30

Dantzaldia Duo Imperial taldearekin, Isla Plazan.

Ekainak 29, ostirala**10:00**

Ttirriki Tarraka trikitilariak diana joko dute herriko kaleetan barrena.

**SUGATE**

SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- arnairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com - www.sugate.net

LIBRERIA MAITE

Ondo pasa jaietan!
Geltoki kalea 12, Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 27 91

Maite Erkizia

ILE-APAINDEGIA

Ondo pasa jaietan!
Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA

11:30-13:30

Haurrentzako parkea, Andatza plazan.

11:30-13:30

Pilota partidak, jubenil eta 1. mailako seniorrak, Loidi Barreneko pilotalekuan.

12:00Extremadurako danbolin jotzaileen ekitaldia eta *migen* dastaketa, Okendo plazan.**12:00**

Kantu-dantza jira abiatuko da Sagardotegi Kaletik, eta herriko hainbat kaletan barrena ibiliko da.

12:30

Herri-kirolak, Elizatze plazan.

Aizkora eta trontza:

Maika Ariztegi, Nerea Sorondo, Itxaso Onsalo eta Irune Izkue.

Harrijasotzailea, ingude eta txingak:

Karmele Gisasola

Artaburu jasoketa eta trontza:

Jone Hualde eta June Etxeberria

**13:00**

Erketz EDTri omenaldia egingo zaio, Manuel Lekuona kulturetxean.

16:30-19:00

Haurrentzako parkearen jarraipena, Andatza plazan.

17:00

Haurrentzako xexenak, Isla plazan

17:30

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa abiatuko da Blas de Lezo kaletik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko da, Tirriki Ttarraka lagun dutela.

18:00

Eusko Orleans Dixie Band kaleetatik barrena.

18:00

Sardina jate herrikoia, Okendo plazan.

18:00

Sagardo dastatzea, Okendo plazan.

19:00Txirigotak, Manuel Lekuona kulturetxean: Cuarteto de Javi Aguilera *Los de la gran Puñeta*; Chirigota Ilegal *Las guerreras de la tribu del totem goro* eta Comparsa de Juan Carlos Aragón *Los Mafiosos*.**19:00**

Biyak Bat konpartsa Jubilatuen Elkartetik abiatuko da, Gau Txori txaranga lagun duela, eta herriko kaleetan barrena ibiliko da.

19:00

Dantza tradizional gidatuak, Okendo plazan.

22:30

Bertso festa, Manuel Lekuona kulturetxean, parte-hartzaile hauekin:

Gai-jartzailea:

Uxue Loinaz

Bertsolariak:

Unai Muñoa, Ane Labaka, Beñat Iguaran, Igor Elortza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Deskontu eta beherapen handiak!

Bideo = TIEN 21 = Lagunak

Finantziazio neumira Garraio zerbitzua Erabilitako gailuen jasotzea Aholkularitza espezializatua Preziorik onena

Etiketresna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Donostia etorbidea 2 • Lasarte-Oria | Tel.: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Prestatu zaitez festetarako, merezi duzu eta!

Manikura edo pedikura egin, depilatu, beltzarandu edota aurpegiko edo gorputzeko tratamendu bat egin jaietarako!

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

Ondo pasa jaietan!

N

NOOOO BIDAIK

BIDAIK TALDEAN

943 37 36 13 noooo.eus Hipodromo Etorbidea, 10 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa

23:00-02:00

Dantzaldia Ibai Berriak taldearen eskutik, Jaizkibel plazan.

00:00

Zezen Suzkoa, Kale Nagusian .

00:00

Vendetta, Okendo plazan.

Ekainak 30, larunbata**11:00**

Pilota txapelketako finalak, Benjamin A, Alebin A, Alebin B eta Infantil mailak, Loidi Barreneko pilotalekuan.

11:00

Lerroko dantzen erakustaldia egingo dute Biyak Bat Elkarteko kideek, Okendo plazan.

11:30-13:30

Haurrentzako parkea, Andatza plazan.

12:00

Patinaje erakustaldia APG elkartearen eskutik, Okendo plazan.

12:00

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa abiatuko da Blas de Lezo kaletik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko da, Gau Txori Txaranga lagun duela.

16:30-19:00

Haurrentzako parkearen jarraipena, Andatza plazan.

17:00

Haurrentzako xexenak eta poniak, Isla plazan.

**18:00-20:00**

Dantza lehiaketa eta Minidiskoa, Jaizkibel plazan.

22:00

Su Ta Gar, Okendo plazan.

23:30

Dinbi Banda, Okendo plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko da .

00:00

Zezen Suzkoa, Kale Nagusian.

00:00-03:00

Dantzaldia Iceberg orkestrarekin, Isla plazan.

00:30

Los Mojinos Escozios, Okendo plazan.

02:00

Dinbi Banda, Okendo plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko da.

02:45-05:00

Moving Group Diskofesta, Okendo plazan.

Uztailak 1, igandea**06:30**

Gautxori txaranga, Okendo plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko da .

06:30

Txokolatada bikaina, Elizatze plazan.

07:00

Xexenak, Sasoeta eskolako patioan.

11:00

Oriako Txaranga lagun duela, Gaztetxoan danborrada abiatuko da Okendo plazatik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko da.

11:30-13:30

Haurrentzako parkea, Andatza plazan.

12:30

Voces del Ebro jota nafarrak, Isla plazan.

14:00

Herri bazkaria, Tximistarreta parkean. Mahaiak, aulkiak, parrillak izango dira. Nork bere janaria eraman beharko du.

16:30-19:00

Haurrentzako parkearen jarraipena, Andatza plazan.

17:00

Oaintxe in deu txaranga, herriko kaleetatik barrena.

18:00

Errekortadoreen emanaldia, Sasoeta eskolako patioan.

18:00

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa abiatuko da Blas de Lezo kaletik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko da, Oaintxe in deu Txaranga lagun duela.

19:00

The Blackfeet Music taldearen kontzertua, Jaizkibel plazan.

20:30

Makulu Ken taldearen emanaldia, Jaizkibel plazan.

22:45

Valecea piroteknia ospetsuaren su-festak, Atsobakarreko zelaian.

23:00

Dantzaldia Son Kandela taldearekin, Jaizkibel plazan.

23:30

Los Caligaris, Okendo plazan.

00:00

Zezen Suzkoa, Kale Nagusian.

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEKIAK
papeleria
LOGOTIPOAK
koadernoak

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2
20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus

Lasarte-Oriako sorgin eta aztiak aurten ere herriko erdigunea hartuko dute. Urteroko osagaiei berrikuntza batzuk gehitu, eta asteazkenetik igandera, gazte eta helduek gozatzeko edabe misteriozua prestatu dute Sorgin Jaietako lagunek.

Ondo pasa jaietan!

ADURIZ DE LASARTE, S.A.
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

GOXOKIS GOXUA

Ondo pasa San Pedro jaietan!!

Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666

GAROA
taberna

Koktel bereziak eta konbinatuak

Ondo pasa San Pedro jaietan!

Sagardotegi kalea 4, LASARTE-ORIA

M. BERASATEGI
DESDE 1961 ETIK
• KAFE & TEA •

Aupa San Pedro jaiak eta ondo pasa!

www.cafesberasategi.com

Ekainak 27, asteazkena**18:00**

Kuadrillen jaitiera eta psikokiller jokoa
Kale Nagusitik abiatuta.

20:30

Txupinazoa, Okendo plazan.

22:30

Gaitzerdi taldea eta ondoren DJ Ixter,
Okendo plazan.

Ekainak 28, osteguna**18:00**

Stereo antzerki lana, Gaztelekuan.

18:30

Trikipoteoa Gaztelekutik.

20:00

Kontzertuak, Oriarte BHI kanpoan:

Apalatxe

Arrotzak

Paniko

Indreneroni

Ondoren

Danborrada eta jarraian, DJ Alabarrunak
girotuko du Okendo plaza.

Ekainak 29, ostirala**14:00**

Sorgin bazkaria, Okendo plazan.

Ondoren

Kontzertu akustikoa, Okendo plazan.

17:00

Sorgin-Olinpiadak, Kale Nagusian

02:00

Erokomeri erromeria taldea, Okendo
plazan.

Ekainak 30, larunbata**11:00**

Aizkolariak, Okendo plazan.

13:00

Manifestazioa, Okendo plazan.

14:30

Elkartasun bazkaria, Okendo plazan.

18:00

Bertsopoteoa, txosnatik abiatuta.

Uztailak 1, igandea**10:30**

Bakailao Lehiaketa, Mercero plazan.

16:00

Mus Txapelketa, Okendo plazan.

19:00

Atazal eta Kaxueira taldeak, Okendo plazan.

22:30

Sorgin Jaiaren agur festa, Okendo plazan.



TABERNA Buenetxea KAFETEGIA



Ondo pasa herriko jaietan!

FESTETAN, ONDO JAN!

- **Pintxoak**
- **Razioak**
- **Ogitartekoak**
- **Hanburgesak**
- **Sandwich-ak**

**DASTATU GURE
FRESKAGARRIAK:**

- **'Smoothie'-ak**
- **Batido naturalak**
- **Koktelak**
- **Gin-tonic bereziak**
- **Kafeak izotzarekin**

Pablo Mutiozabal, 2 • Tel: 943 36 95 08 • LASARTE-ORIA

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

I. Urruzola

aroztegia

Ondo pasa jaietan!

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

iurruzolaaroztegia@gmail.com

943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

Eraso matxisten aurkako kanpaina abiatu dute

Udalak hainbat neurri hartu ditu, festetan eraso matxistak saihesteko; 'Ligoteo sanao, bai' kanpaina hasi dute, "Ez da ezetz" mezuak zabaltzeko. Edozein motako eraso salatzeke deia egin du alkateak. 900 840 111 telefonoa jarri dute laguntza eskatzeko

Txintxarri

Urte osoan izaten dira eraso matxistak, baina horietako asko festa giroan gertatzen dira, alkohola dela medio. Lasarte-Oriako Udalak eraso horiek saihesteko kanpaina abiatu du, eta tabernariekin hitz egin du, protokolo bat ezartzeko. Modu horretan, *Ligoteo sanao, bai!* lelopean 140.000 ahozapi banatuko dituzte tabernetan. Zapi horietan eraso matxisten aurkako telefonoa jarrita dago, baten batek edozein unetan laguntza beharko balu: 900 840 111. Horrez gainera, diptiko bat banatuko dute, "Ez da ezetz" mezuarekin. Autobus geltokietan ere mezu horiek jarri dituzte.

Jesus Zaballos alkateak azaldu ditu udalak harturiko neurri batzuk. Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak eta Emakumeen Zentro Zibikoko ordezkariak lagundu dute.

Festa egin eta gero, ordu txikitian etxera itzultzea arazoa izan daiteke bat baino gehiagorentzat. Udalak telefono



Udal eta Zentro Zibikoko ordezkariak, kanpaina azaltzen. TXINTXARRI

bat jarri du, jendea etxera seguru laguntzeko.

Bestalde, Berdintasun teknikoak tabernetatik igaro dira, erasoen aurkako protokoloa azaltzeko. Taberna barruan horrelakorik gertatuz gero, musika itzali, argiak piztu eta erasotzailea tabernatik bota beharko lukete.

Horrez gainera, txupinazoetan hainbat mezu zabalduko dituzte puxiketari. Berezi haurrenean indarra jarri nahi dute, txikitatik "berdinen arteko harremanak" sustatzeko. Helduen txupinean berriz, aniztasun sexualaren errespetuaren aldeko leloak zabalduko dituzte.

NEURE KABUZ

LASARTE MORIA

Jai gozagarri batzuen alde

Badatoz Sorgin Jaiak eta badatoz sanpedroak. Herritarrok kaleak eta plazak beteko ditugu, eta festa giroan pasako ditugu bost egun. Kontzertuak, dantzaldiak, askotariko ekintzak, bazkariak, kalejirak, poteoak... denetarik izango dugu ondorengo egunetan. Baina, urtero moduan, Lasarte Moriak galdera luzatzen die herritarrei: norentzako dira festak? Nork gozatuko ditu?

Egitaraua zabaldu eta lehenengo hutsunea sumatu dugu segidan. Bost talde ekarri ditu udalak aurten Okendo plazako giroa berotzeko. Horietatik bakarra da emakumea, La Basu rap kantaria. Non daude gure aldarrikapenak? Non gure erreferenteak? Gizonek beteko dute aurten ere oholta; areago, susmoa dugu larunbat gauean ez ote den testosterona maila altuegirik izango gureak ere beharko lukeen espazio batean, herriko plazan, txosna gunean.

Gauaz ari gara, parrandaz, jai giroaz. Baina, ezin ahaztu tarte horietan lotsagabe erantzten diren matxiruloez. Limurkeria hemendik, ukipen bat handik, desio gabeko muxu behartu bat, komunetako estualdiak, etxerako presak... horiek ere bizi ditugu emakumeok* jai giroan. Badira zenbait urte, ordea, herriko andreok* bildu eta antolatzen hasi ginela. Brigada Morea lehenik, autodefentsa tailerrak ondoren, eta herriko talde feminista azkenik. Jaiak eta gauak ere geureak direla aldarrikatzeko unea da, hortzak erakustekoa, egunsentiarate gozaraztekoa.

Eta horretarako, jakina, prest gaude. Otso taldean gerturatutako gizonak ez dira gehiago gu beldurtuko gaituztenak, gu geu garela otso taldea. Ez gara gu kontuz ibili behar garenak, herrian solte eta ardurarik gabe jai giroan ibiliko diren matxiruloez baizik. Ozen egiten dugu uluka, eta zorrotz ditugu hatzaparrak.

Festak gozatu nahi ditugu guk, emakumeok* ere. Aske. Eta hala egingo dugu aurten ere Sorgin Jaien suaren inguruan. Baina ez dadila inor oharkabean erori, edozein erantzun emateko prest gaude eta. Antolatu gara, eta prest gaude kaleak hartzeko, gauak geure egiteko. Atera dugu amona sukaldetik kalera, ama garenok utzi ditugu itzaleko ardurak, erantzi ditugu lotsak eta indarrez bildu gara gure ahizpekin. Prest gaude aurre egiteko, eta prest gaude gozatzeko.

Sorgin Jaietan eraso sexistarik ez!

Erasoen aurrean autodefentsa feminista!

Gora borroka feminista!

J A I P A R E K I D E E N A L D E



Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria • Tel.: 943 128 371

EGUZKI TABERNA

- Entsaladak
- Razioak
- Nahaskiak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Plater konbinatuak

Enkarguzko otorduak eta baita eramateko ere.

Eta ostegunetan...
pintxo-potea!



Ondo pasa San Pedro jaietan!



NUTRIZIO DENDA

Kale Nagusia 46, 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 57 93 16

• ZURE NEURRIRA
PRESTATUTAKO DIETA
ETA ENTRENAMENDUA

• DIETETIKA ETA
NUTRIZIOAN
AHOLKULARITZA

• ESPERIENTZIA ZABALA

Berria!

Euskal ukitua, Ttakunen esku

San Pedro jaietako egitaraua herriko elkarten ekintzez osatua dago hein handi batean. Besteak beste, Ttakun Kultur Elkarteak ekarpentxoak egiten du. Aurten ere, jaietako egitarauan ohitura bihurtu diren hainbat ekitaldi antolatuko ditu

Txintxarri

1991ean sortu zenetik hainbat ekintza sustatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, San Pedro jaietan euskal giroa sustatzeko asmoz. Aurten ere ez du hutsik egingo. Haur, gazte eta heldu, adin guztietako herritarrek dute aukera elkarteak 2018. urteko sanpedroetan antolatzen duen egitarauko ekintzetaz gozatzeko.

Musika eta dantza izango dira nagusi. Sorgin dantzan, kantudantza jiran edo erromerian herritarrek haien dohainak erakutsi ahalko dituzte. Baina bada tarteetik ere gure gastronomia dastatu (zikiro afaria edo sagardo dastaketa), eta Patxintxi sarien bidez aitorpen soziala egiteko. Elkarteak arduradunek herritar guztiak deitu dituzte ekimenetara hurbildu eta parte hartzera.

Patxintxi lehiaketa

San Pedro jaietako hasiera emateko, 65 urtez gorako herritar maitagarri eta goxoena omenduko ditu Ttakun Kultur Elkarteak.

Hirugarren urtea da Patxintxi lehiaketa martxan dagoela; aurreko bi edizioetan herritarren

esker ona jaso dute On Ramon Uribeberri, Rosa Velascok, Jesus Mari Egizabalek eta Apoloni Otxandorenak.

Aurreko urteetan lez, Lasarte-Oriako adin txikiek aurkeztu dituzte hautagaiak. Horiek ezagutzera eman ziren ekainaren 20an, asteazkenean, Ttakunen sare sozialetan. Ekainaren 25 astelehenera arte, herritarrek haien bozka emateko aukera izango dute.

Ekainaren 28an, haurren txupinaren ostean, lehiaketako irabazleak jakitera emango ditu elkarteak, udaletxe zaharlean egingo den ekitaldian.

Sorgin Dantza

Ordu batzuk geroago, Lasarte-Oriako herritarren artean San Pedro jaietako ekintza errotuenetarikoa bat egingo da: Sorgin Dantza.

Ttakun Kultur Elkarteak hartu zuen bere gain 1994an, eta gaur arte antolatzeaz arduratu da. Urtez urte herritarren parte hartzeak gora egin du, eta sanpedroetako ekitaldi jendetsuenetarikoa da. Iaz, 300 lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten.

Eguraldia lagun izanez gero, antolatzaileek aurten ere parte hartzaile kopuru bera espero dute. Izan ere, hilabete honetan Okendo plazan egin diren entseuetan 200 bat pertsona bildu dira egunero.

Ohiturari eutsiz, Sorgin Dantza Oriatik abiatuko da, 16:30ean. Ordurako guztia prest egoteko, dantzari eta txistulariak 16:00etan dute hitzordua Oriako Karmengo Amaren kaperaren ondoan.

Haur eta helduen zortzikotea buru dutela, Oriako dantza egin eta kalejiran herriko erdialderuntz egingo dute dantzariak.

Ibilbidean ohiko geldialdiak egingo dituzte: Biyak Bat jubilatuen elkarte parean eta udaletxe zahararen aurrean. Behar izanez gero, indarrak berreskuratu eta eztarriak freskatzeko ere geratuko dira beste zenbait gunetan.

EUSKAL GIROA SUSTATZEKO EKINTZAK ANTOLATU DITU AURTEN ERE Ttakun ELKARTEAK



Sorgin Dantza Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ibiliko da eta Okendo plazan amaituko da, Erketz...

Antolaketa lanak Ttakun Kultur Elkarteak bere gain hartzen baditu ere, herriko Lasarte eta Genesis tabernen laguntza izango dute, Sorgin Dantzako parte hartzaileak edari eta freskagarriekin hornitzeko.

Zikiroa

Bien bitartean, Mercero plazan sukaldariak tradizio bihurtu den zikiro afariaren prestaketa lanak hasiko dituzte.

Afalordura arte, 200 bat lagunentzako zikiroa erre eta usain gozoaz beteko dituzte Okendo plaza eta inguruak. 21:30ak aldera haragia puntuan izango dute.

Okendo plazako mahaikideek, ordea, ez dute soilik zikiroa dastatuko; entsalada, postrea eta kopa ere eskainiko dira afaltzerako orduan. Era

honetara, sabelak ederki bete ahalko dituzte.

Tiketak salgai daude bihar, ekainaren 23ra arte, hogeiturotan, Ttakun Kultur Elkartearen eta Jalgi tabernan.

Bestetik, San Pedro egunean musika izango da nagusi Ttakunen ekintzetan. Eguna modu ederrean hasteko, 12:00etan kantu-dantza jiran parte hartzeko aukera ezin hobea izango dute lasarteoriatar guztiak.

Txistularien, Txapas eta Joxerra San Sebastianen laguntzaz, Sagardotegi kaletik abiatuta euskal doinuak eta umore ona izango dira nagusi Lasarte-Oriako kale eta plazetatik barrena.

Herritarrez gain, herriko Xumela koruko eta Alboka abesbatzeko kideek parte hartuko dute kantu-jiran. Beste talde gonbidatu batzuk ere izango



Ondo pasa San Pedro jaietan!



Bekokale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

Ondo pasa San Pedro jaietan!!

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxurak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45



teko helduek txupina bota baino lehen. TXINTXARRI

eta Dantza eskolako lagunek ere parte hartuko dute. Urtez urte, harrera hobea du Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ekintza horrek.

Sagardo dastaketa

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, ohiko sagardo dastaketaren txanda iritsiko da Okendo plazan. Sollane, Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltsate. Lasarte-Oriako sagardotegi eta baserrietan ekoiztutako sagardo basokadak edango dituzte bertaratutakoek, edaria amaitu arte.

Dastaketa doakoa da, baina aurretik euro batean edalontzia erosi behar da. Hau da, nahi adina edan ahal izango dute bertaratutakoek.

Sagardo dastaketa ez ezik, erromeria gidatua ere izango da San Pedro eguneko arratsalde euskal doinuez betetzeko.

Dantza gidatua 19:00etan hasiko da, plazan bertan. Javi Fernandez de Lezeak zuzendutako saioa izango da, eta Ttirriki Ttarrakak jarriko du musika. Dantzan jakin edo ez, herritar guztiek edukiko dute primeran pasatzeko aukera.

dira, hala nola, Hondarribiako eta Zarauzko Montetxio eta Olagarro.

Dantzari dagokionez, plaza dantza taldeetako kideak izango dira kantu-dantza jiran; Erketz EDTeko eta Kukuka Antzerki



Makarroi jana ez du Ttakunek egingo

TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Urte askotako lan irmoa eta nekeza behar izaten dira ekintzak erroto eta ohitura bihur daitezzen. Ibilbide luze eta trinko baten poderioz, haurren makarroi janak lortu du herriko jaietan bere lekua izatea. Egun, beste zenbait hitzordu esanguratsuren artean, herriko gaztetxoek gogoz itxaroten duten ekintza bilakatu da. Euskaraz eta jai giroan, lagun nahiz kuadrillakoeekin, makarroi jana egin eta jarraian, udako tenperaturak laguntzen badu, *bota ura* ekintzarekin freskatzeko aukera paregabea izaten dute.

Hasiera batean haurren asialdia euskaratu eta gaztetxoek jaietan presentzia edukitzeko sortu zen hitzordua. Baina bilakaera nabarmena izan du; egun herriko jaietako haur eta gazteei zuzendutako programazioaren zita nagusia dela esan genezake. Ohitura horrek herrigintzaren eta euskalgintzaren eskutik egin du bere bidea, hain justu, Ttakun



TXINTXARRI

Kultur Elkartearen, boluntario eta hezitzaile lan taldearen dinamizazioari esker.

Aurten, lehen aldiz, ez da horrela izango. Elkartearen egoera aldatu egin da udarari dagokionez, eta aurten ez ditu besteetan izandako giza baliabideak. Hori dela eta,

makarronadari beti bezala egokitasunez erantzun ahal izateko, udalari elkarlanean beste trataera bat egiteko beharra aurkeztu zaio. Haatik, eskaera horren aurrean, lanketari tarterik eskaini gabe, kanpoko enpresa bati eman zaio ekimenaz arduratzeko enkargua.

Sardina-jatea ekainaren 29an 18:00etan, Okendo plazan!

25 urte herrigintzan zurekin



aterpea

**Herriko merkatariek,
jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**





Maria Luisa Muguruzak, Juani Telleriak, Ramoni Irulegik, Itziar Iartzak eta Arantxa Arteagak (ezin izan zuen omenaldian egon) erein zuten Erketz EDTren hazia. TXINTXARRI

Txintxarri

1966 urtean ereiten hasi zen Erketz EDTren hazia, Eusko Gaztedik Usurbilgo Aginaga Auzoan egindako topaketaren ostean. Santa Barbara elkartearen babespean, Luisa Muguruza, Juani Telleria, Ramoni Irulegi, Itziar Iartza eta Arantxa Arteagaren lan eskergari esker, bi urte geroago jarri zen martxan dantza taldea. Urte horietan guztietan, kide kopuruan gorabehera asko izan ditu, bidaia ugari egin eta ekimen arrakastatsuak eraman ditu aurrera. Hala ere, beti eutsi dio helburuari: euskal kultura eta dantzak sustatzeari. Taldearen urrezko ezteiak direla eta, urte osoko egitaraua antolatu du elkarrekin, baina herriaren esker ona ere jasoko du Erketz EDTk: San Pedro jaietako omendua da.

Dantza taldeak baditu bere sorreratik hainbat bereizgarri; euskal dantzak lekuan-leku diren moduan jaso eta taularatu ditu. Mainer Galardik *1968-2018. Etenik ez duen soka* liburuan jaso du mende erdi horren kontakizuna. Hastapenean, herrian zegoen gizon

50 urte euskal kultura sustatzen

Ehundaka kide, milaka ekintza, irakaskuntza eta bizipen... ez da erraza Erketz EDTren 50 urteko ibilbidea laburtzea. '1968-2018. Etenik ez duen soka' liburuak aurten omendua izango den taldearen historia gerturatu die herritarrei

taldeak Donostiako Argia eta Andoaingo taldeko kideen eskutik jaso zituen lehen pauso eta irakaspenak, baina segidan hasi ziren Euskal Herriko herrietatik barrena bidaiatzen. Lan horren ondorioz, Tolosako Urrezko txapela irabazi zuen 1970ean.

Txapelketa horretan ez zen dantza bakarrik hartu kontutan; emanaldia bere osotasunean aztertzen zuten. Horren barruan jantziak daude. Eta, hain zuzen,

hori da taldearen altxorra. Erketzek dantzen jantzi bereizgarriak erabiltzen ditu, "dantzari koherentzia ematen" baiote. Mimos egin eta konpondu eta zaindu dira urte hauetan guztietan. Horri esker, Euskal Herriko dantzen ehun jantzi baino gehiago dituzte. Horien lagin bat ikusi ahal izan zen martxoan antolatu zuten desfilean.

Bestalde, musikari talde propioa du Erketzek. Hernaniko txistularien

laguntza izan zuten lehen emanaldietan, baita Juan Antonio Urbeltzekin ikasten ari ziren herritarrena ere. Musikarien beharra zegoenez, dantzariak txistua edo behar zituzten instrumentuak ikasi zituzten. Horrela, belaunaldiz belaunaldi elkarri txistua irakatsi zieten.

1983an, Kroaziako bidaietan, musika banda beharrezkoa zela ikusi zuten taldeak. Musika taldean ere dantzakide ugari izan dira.

Musika ikasketak dituzten herritarrek edo ezagutzariek ez dutenak, guztiak Erketzeko kide dira. Horregatik, taldearen emanaldietako parte dira ere, eta taldearekin bidaiatzen dute bazter guztietara. Era honetara, gainera, haiek ere herrietako dantzen doinuak jaso dituzte.

Frantzia, Jugoslavia, Polonia, Italia, Austria, Belgika, Grezia, Portugal... anitzak izan dira Europa barruan euskal kultura erakusteko taldeak egindako bidaiak. Atlantikoa ere gurutzatu zuten, 1999. urtean.

Baina bidaia horietaz gain, eguneko edo asteburuko irteerak ere egin dituzte Euskal Herriko eta Espainiako hainbat hiriburu eta herritara. Leku horiek guztiak ezagutzeaz gain, elkarrekin bizi eta taldean lan egiten ikasteko balio izan diete.

Ekimenak

Erketz EDTk hainbat ekimen abiatu ditu urte hauetan guztietan. Esate baterako, euskara klaseak eskaini zituen. Badira herrian arrakasta handia izan duten beste ekintzak ere.

Esaterako, Nazioarteko Folklore Jaialdia 1981ean antolatu zuten lehenengoz. Portugaleteko Elai Alai taldeak egiten zuten nazioarteko jaialdiaren harira, aukera eskaini zioten herrira taldeak ekartzeko. Gipuzkoan ez zegoen horrelakorik; berrikuntza bat zen. Lan handia izan zen taldearentzat lehen edizio hura antolatzea.

Baina horri esker, 27 urtean munduko folklorera leihoa ireki zen. Mexiko, Korea, Hungaria... Munduko herrialde guztietako taldeak etorri izan dira Lasarte-Oriara. Eta elkartrukeak lotzeko aukera ere eman zion Erketzi.



- Ogi ezberdinak
- Bonboiak
- Opilak
- Kafetegia
- Pastak
- ...

Ondo pasa herriko jaietan
eta zatorz gurekin
gosaltzera!!



Horrez gain, 30 urte daramatza Euskal Herriko dantzari txikien topagune bihurtu den jaialdia antolatzen: Dantzari Txiki Eguna. Lehen edizioan inguruko taldeak gonbidatu zituen. Egun, Euskal Herriko taldeak eta Lasarte-Oriakoak biltzen dira. Izan ere, Erketzek beti izan du argi herriko taldeei lekua egingo ziela. Horrela, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako haurrek ere parte hartzen dute jaialdian.

2000. urtean, hausnarketa baten ostean, Erketz Dantzaren Lagunak taldea sortu zuten. Plaza dantzak irakasten dituzte, eta bizitzaren gorabeherak direla eta, helduen taldea utzi behar izan duten hainbat kide daude bertan. Azken urteetan, Dantzari Eguna ere antolatu du taldeak, beste herrietako dantzak jendeari gerturatzeko asmoz.

Etorkizuna

Erketz taldeak bere hastapenetik indar berezia jarri du taldearen harrobia lantzeko. Lehen urteetan Zainberri izenarekin ezaguna zena, laster Erketz Txiki izan zen. Ikastolan euskal dantzak ikasteko aukera ez zutenei atea ireki zitzaion.

Txikien taldeak ere ongi eutsi die enbatei, eta egun dantza eskola bilakatu da. Haurrek 13 edo 14 urterekin Erketzera egiten dute salto. Baina zaila izaten da garai hori; ikasketak, eskaintza zabala... ez da erraza jarraitzea. Hala ere, urtez urte eskolako dantzariak helduen taldea elikatu du.

Egun 22 helduk eta 14 haurrek osatzen dute Erketz. Erronka ugari ditu aurretik. Halere, lehenik San Joan suan dantzatu eta San Pedro jaietan omenaldia jasoko du. Uda ostean, berri, bere 50. urteurrena ospatzeko ekintzek jarraituko dute.

Beste 50 urtean gogoratzeko emanaldia

San Pedro jaiak iristeko irrikitan daude lasarteoriarrak. Gero eta gutxiago falta da. Festa lehertu bitartean, motorrak berotzeko hainbat ekitaldi ari dira gozaten. Larunbata arratsaldekoa izan zen ikusgarrietako bat, zalantzarik gabe. Urteroko ohiturari jarraituz, emanaldi ikusgarria eskaini zuen Erketz EDT dantza taldeak. Beste bat. Berezia izan da aurtengoa: 50 urte betetzen dituzte, eta, herriko beste hainbat talderekin elkarlanean, euren erreperiario onena plazaratu zuten. Alboka abesbatza eta SuBerri zein Zero-Sette akordeo orkestrak izan zituzten bidelagun. Ezusteko modura, Lasarte-Oriako erraldoiak ere agertu ziren festara. Ordu eta erdi inguru iraun zuen emanaldiak; zitzu bizian pasa zitzaion denbora ikus-entzuleei, eta nekatu arte egin zuten txalo, artista guztien lana eskertuz.

Eskertzarekin bukatu zen emanaldia, eta baita hasi ere. Duela 50 urte hazia erein eta lan izugarria egin zuten Arantxa Arteagak, Itziar Iartzak, Juani Telleriak, Ramoni Irulegik eta Maria Luisa Muguruzak. Larunbata arratsaldean Erketzen esker ona jaso zuten, eta baita oroigarri bana ere. Aitortza ekitaldi xumea bukatu ostean hasi ziren dantza eta musika emanaldiak. *Agurra, Ezpata-dantza, Neskatxena, Lesaka, Mahaigainekoa, Axuri Beltza, El Caserio, Lekorneko Kabalkada* eta arratsaldeko emanaldi ikusgarriena: *Eusko Irudiak*. Dena San Fermin Eskola Su Berri akordeo orkestrak lagunduta. Horrez gain, Zero-Sette eta Albokarekin batera aritu ere ziren Erketz EDTko hainbat dantzari. Bukatu aurretik, emanaldira gonbidatutako taldeek oroigarri bana jaso zuten, ikuskizunean parte hartzeagatik.

Zur eta lur geratu ziren herritarrak emanaldiaren kalitatearekin. Gutxienez, beste 50 urtean gogoratzeko modukoa.



Erketz osatzen duten taldeek parte hartu zuten ekitaldi berezian. TXINTXARRI



Erketz eskolako bikiek mahai gainean dantzan trebeak direla erakutsi zuten. TXINTXARRI



Erketz EDTko lagunek dantza mota asko eskaini zituzten. TXINTXARRI




Erketzek lagun izan zituen emanaldian Alboka, Zero Sette eta Suberri. TXINTXARRI

ZATOZ GURE JAKI GOXOAK
DASTATZERA!

Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Sandwich-ak
Hanburgesak
Plater konbinatuak

Ondo pasa San Pedro jaietan!

Ola kalea 2, Lasarte-Oria • Tel. 943 36 27 68



Fernández
ehunak

Ondo pasa jaietan!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!

1.999 TIK
ABREU
Bazarra

Ondo pasa
San Pedro jaietan!



www.facebook.com/pages/Bazar-Abreu

Geltoki kalea 2,
LASARTE-ORIA
Tel: 943 36 58 46

"Kontzeptua gailendu dugu ikusgarritasun plastikoaren gaineratik"

TOÑO GUTIERREZ ETA DIEGO GIL 2018KO KARTEL IRABAZLEAREN EGILEAK San Pedro jaiak iragartzen dituen kartelaren egileak Burgosekoak dira. Horrexegatik, ezinbestekoa izan zaie dokumentazio lana egitea marrazten hasi aurretik

Maddi Noriega

2018. urteko San Pedro jaiak iragartzen dituen kartelaren egileak dira Toño Gutierrez eta Diego Gil. Ohiko diseinuetatik aldendu eta lan "kontzeptuala" egitera ausartu dira Burgoseko egileak. Ezustea izan da lehiaketa irabaztea, baina saria eskuratuta Lasarte-Oriara bisita egingo dute orain.

Ez zarete Lasarte-Oriakoak. Nola jakin zenuten lehiaketaren berri?

Lehenengo aldiz parte hartu dugu lehiaketa honetan. Normalean ez gara askotara aurkezten, nahiz eta aurten batean baino gehiagotan parte hartu dugun. Izena emanda gaude horrelako lehiaketen berri ematen duten web orrialdeetan, eta horren bitartez jakin genuen.

Egon al zarete inoiz San Pedro jaietan? Eta Lasarte-Orian?

Herriko festak ez ditugu ezagutzen, baina bai Lasarte-Oria. Gastronomía turismoagatik ezagutzen dugu. Dena den, materiala hartu aurretik, azterketa bat egiten dugu, marraztu behar duguna ikertzeko. Jaien kartel bat egin behar badugu, festa horien inguruko informazioa biltzen dugu, bertako ohiturak eta ezaugarriak jaso;

hori guztia dugunean hasten gara marrazten.

Zertan oinarritu zarete sortu duzuen lanarekin jaiak irudikatzen?

Sorgin Dantza izan da kartela egiteko abiapuntua. Festetako ekintza adierazgarria dela ikusi dugu, eta hortik abiatzea erabaki genuen. Behin hori finkatuta, kontzeptua gailendu dugu ikusgarritasun plastikoaren gaineratik. Ideia kartel bat da. Ohikoagoa da festak iragartzeko kartel koloredunak, su festa irudikatzea... Baina gurea kontzeptualagoa da.

Zibak erabili ditugu Sorgin Dantzako dantzariak irudikatzen. Zibek dantza egiten dutenez, elementu horiek uztartzea erabaki genuen. Ludikoa da. Mugimendua, akzioa eta dinamismoa transmititzen dute, eta dantzari egiten diote erreferentzia.

Horrez gain, badago ere beste ikuspegi bat, eta Lasarte-Oriako Sorgin Dantzari keinu egiten dio. Jakin genuen gizon eta emakumeek rola aldatzen dituztela dantza horretan, eta hori ere ekarri dugu gure lanera. Horregatik ez diegu aurpegiarik jarri dantzariari; dantzariak ordezkatzeko elementuak

asexualak dira. Ez da errebindikazioa egiteko kartel bat, baina genero berdintasunaren aldeko mezu garbia ere badu atzean. Hori izan da elementu bereizgarrietako bat.

Nola izan da sorkuntza prozesua? Adostasunera iristea lan zaila izan al da?

Elkarrekin aurkezten gara ia beti. Sorkuntza lanean bakoitzak bere ideiak botatzen dizkiogu elkarri. Biok egiten dugu lanketa, baina gero Diegok lan teknikoa egiten du. Lasarte-Oriako egiteko, ohikoenak izan daitezkeen Photoshop edo Illustrator programak erabili beharrean, Autocadekin egin dugu lan. Ideia nahiko garbi geneukan, baina zerbait ezberdina egin nahi genuen.

Zein estilo du kartelak?

Kontzeptuala: ideia da garrantzitsuena kartelean. Islatzen dena ez da figuratiboa, ez da errealista. Kasu honetan zibek pertsona batzuk sinbolizatzen dituzte; horregatik da kartel kontzeptual bat.

Diozunez, normalean ez dituzue kartel mota hauek egiten festak iragartzeko.

Festen kartelak normalean ez ditugu hain kontzeptualak egiten.



2018ko San Pedro jaietako kartelaren egileak, lana eskuetan dutela. TOÑO GUTIERREZ

Badakigu horrelako lanak aurkezteak badituela bere arriskuak. Ez dira ulertzeko errazak, jendea beste kartel mota batzuetara ohituago baitago. Aurten lauzpa bost kartel lehiaketa irabazi ditugu, baina Lasarte-Oriako irabazi izanak bereziki harritu gaitu, uste baigenuen ulertzeko zaila izan zitekeela. Ausarta iruditu zait epaimahaia. Zer iruditu zaizkizue lehiaketara aurkeztu diren gainerako lanak? Diseinuaren munduan badaude gustuko lanak eta horren gustuko

ez direnak. Hori bai, gustukoak ez diren lanak teknikoki lan onak izan daitezke. Lehiaketa honetan ikusi da hori. Teknikoki ondo dauden lanak aurkeztu dira, baina amateurrak ere. Gurea gainerako lanekin alderatuta oso desberdina zela konturatu genuen.

Irabazteko aukera ikusi zenuten? Zer egingo duzue sariarekin?

Ez, inolaz ere. Sanpedroetara gerturatuko gara, eta sariaren zati bat bertako gastronomian gastatuko dugu.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

• IBILGAILUAK

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

• MERKATARITZA

- BIZITZA ETA ERRETIROAK
- OSASUNA
- ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

• ERANTZUNKIZUN ZIBILA

- ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
- INBERTSIOAK
- PYMEAK...

Ondo pasa festetan!



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 36 22 75 & FAXA: 943 37 24 13

"Ongi pasatzeko, festa eta borroka behar dira"

ELENA CABALLERO 'LA BASU' RAP ABESLARIA

Euskaraldiaren aurkezpenean eman zituen Caballerok bere musikaren zertzelada batzuk. San Pedro bezperan erritmo biziko abestiekin Okendo plaza dantzan jartzeko asmoa du

Adrian Garcia

Dagoeneko badaki Elena Caballero *La Basu*-k (Etxebarria, Bizkaia, 1983) zer den Lasarte-Orian oholtza gainean kantatzea. Euskaraldiko hamaikakoteko kidea da abeslaria, eta haren doinuek lagundu zuten herrian ekimena aurkezten. Datorren astean bueltan izango da bizkaitarra, San Pedro bezperan kantatuko baitu Okendon. "Rapa beste estiloekin nahasten dut. Jendea dantzaraztea dut gogoko".

Beti ibili zara musikaren munduan, baina zure lehenengo euskara hutsezko diska iaz atera zenuen. Zergatik erabaki zenuen pauso hori ematea?

Nire inguruko jendeak ez zekien euskaraz hitz egiten, eta ni gazteleraz hasi nintzen abesten. Selektu Kolektiboa bazegoen, baina bestela inork ez zuen rapa euskaraz egiten. Ameriketatik zetorren korrante bat zen, orduan ez zegoen politikoki ongi ikusita. Baina konturatu nintzen ez zegoela rapa euskaraz egiten zuen emakumerik. Hamabost urte neramatzan euskaraz hitz egin gabe, eta erronka moduan hartu nuen hizkuntza berreskuratzea.

Zaila izango zen berriro ere hizkuntzari heltzea?

Erabat ahaztuta neukan. Nire inguruko jendeak ez du hitz



La Basu, Okendo plazako oholtza gainean. TXINTXARRI

egiten, eta praktikatzeko modurik ez nuen. Etxean ikastea gauza bat da, baina kalean hitz egiteko ez nuen modurik. Hasieran lotsa ematen zidan, baina poliki-poliki atera dut. Harro eta pozik nago. Koaderno zirriborroz bete dut.

Euskara hizkuntza zuzena eta sinplea da. Raparentzako egokia al da?

Oso zaila egin zait rapera eramateko. Badauka gauza eder bat: ez du generorik. Baina plurala egiteko hitz guztiak amaitzen dira *k*-rekin; benetan zaila da errimak egiteko. Ez dut

hiztegi zabal bat euskaraz, eta kosta egin zait. Baina posible da, eta ari dira ateratzen talde indartsuak. Euskal raparen momentua da orain.

Hamaikakoteko kide zara. Eredu ona zara, ongi ahaleginduta euskaldundu zarelako, ezta?

Ez dakit eredu bat naizen. Nik egoera hori bizi izan dut, eta ahalegin hori defendatzen dut. Jende askok daki euskaraz, baina gaztelerara jotzen dute, agian lotsagatik edo gehiegi pentsatu behar dutelako, niri gertatu zitzaidan bezala. Nik

ere erderaz pentsatzen dut, eta hitz egiteko orduan euskarara itzultzen dut. Nire esperientzia baliagarria izan daiteke jendea animatzeko.

Zure inguruan nola eragingo du Euskaraldiak?

Nire auzoa beti izan da oso gatazkatsua. Inoiz ez da euskaraz hitz egin. Etxe berriak egin dituzte, eta jende gaztea etorri da. Haien seme-alabek bai egiten dute euskaraz, eta gehiago entzuten da. Nire auzoan ez dut inoiz euskaraz entzun, baina orain bai aritzen dira.

Hizkuntza ohiturak astintzeko, rapa izan daiteke tresna egokia gazteak euskarara erakartzeko, ezta?

Dirudienez, rapa boladan dago orain. Azken finean, kalearen oihartzuna da; gizartean gertatzen diren gauzez hitz egiten dugu. Euskara gehitzen badiogu horri, plana bikaina da. Tailerrak ematera joaten naizenean denek dakite zer den, nola funtzionatzen duen... Jendea bertsolaritza entzutera ohituta dago, baina rapa indartsuagoa da, errazagoa. Bertsolaritza oso karratua da; raparekin gehiago jolas dezakezu *h i z k u n t z a r e k i n*, instrumentuekin...

Abestiak erabiltzen dituzu aldarrikapenak egiteko. Askatasuna eta emakumeak asko aipatzen dituzu zure kantuetan.

Bai, asko. Nik pentsatzen dut pertsona guztiak libre izan behar direla. Popa eta rapa beti izan dira gizonenak. Niri tokatu zait hamar urtean emakume bakarra izatea Euskal Herrian. Nire bizitzan gertatzen diren gauzez hitz egiten dut, ongi ezagutzen ditudanetaz. Niretzat rapa da buruan ditudan gauza guztiak kaleratzea. Ongi

pasatzeko, festa eta borroka behar dira.

Matxista al da raparen giroa?

Bai, eta izango da urte askoan. Hogei urte daramatzat abesti horien aurka egiten. Eta, gainera, orain trapa sortu dute, askoz ere okerragoa.

Rapean dabilzan emakumeen lanak zabaltzeko proiektua ere hasi zenuen, *Eskina Femenina* izenekoa.

Urte piloila egon naiz ni bakarrik. Emakume askok kantatzen dute ere, baina jendeak bakarrik gizonak ezagutzen ditu. Tailerretara joaten naizenean gizonak bakarrik aipatzen dituzte, ez diete garrantziarik ematen emakumei. Badirudi ez dugula dirurik ematen. Youtuben kanal bat egin genuen; emakume abeslarien 1.800 bideo d a u d e . T x i n a t a r r a k , Palestinakoak... toki askotakoak. Idazketa tailerrak ematen ditugu, rapeatzen erakusteko. Baita gizonari ere; izan ere, niretzat oso garrantzitsua da haiek jakitea zer den emakume batentzat rapeatzea. Duela lau urte Bazter Fest hasi ginen antolatzen; oholtzara emakumeak bakarrik igotzen dira. Beharrezkoa da emakumeengan apustua egitea, erreferente berriak sortzea.

Emakume gutxi, eta horietatik euskaraz egiten dutenak, are gutxiago.

Lau gara. Jendeak esaten du gauzak aldatzen ari direla. Baina lau gara; horrek esan nahi du gauzak ez direla horrenbeste aldatu. Emakumeek gizonen baino hobeto idazten dute, baina gero ez dira ausartzen oholtzara igotzera. Beldur gehiago dugu, ea besteek zer esango ote duten. Aldatzen dira gauzak, baina oso poliki.



ALBA

ARROPA DENDA

%30


**Ekainaren 25etik
aurrera %30ra arteko deskontuak.**
Animatu San Pedroetarako!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

KOOKAI
PART TWO
ese 0 ese
NAFNAF
VERSE

Ondo pasa jaietan!

Eiburtzio



Artizar

Pintxoak • Razioak • Ogitartekoak...

Kale Nagusia 12, behea atzealde
(Okendo plaza) • LASARTE-ORIA

"Ez dirudi abesti zahar batzuek zentzua galduko dutenik"

AITOR GOROSABEL SU TA GAR TALDEKO ABESLARIA

30 urte betetzear dago euskal taldea, baina artean Lasarte-Orian jo gabe dago. San Pedro gauean joko dute Okendon. Haien abestiek ez dute gaurkotasunik galdu

Martin Vicioso EIBAR

1988ko abuztuan, lau eibartar gaztek euren lehenengo kontzertua eskaini zuten Ondarruko gaztetxean. Egun hartatik 30 urte betetzear direla, gurean, Lasarte-Orian, izango ditugu ekainaren 30ean, San Pedro jaietako larunbatean. Punk estiloa nagusi zen garaian, metal abestiak euskaraz egiten hasi zen lehen taldea izan zen Su Ta Gar, eta, gaur egun, oraindik ere, euskarazko rock talde esanguratsuenetakoa bat izaten jarraitzen du. Aitor Gorosabel (kitarrajole eta abeslari) taldekidearekin izan da TXINTXARRI, taldearen gaurkotasunari eta ibilbideari buruz hitz egiteko.

Udara heldu da eta Su Ta Gar jo eta ke ari da kontzertuak ematen.

Bai, nahiz eta ez gauden berezko birarik egiten ari. Kontzertuak, lotzen ditugun heinean, jakitera eman eta egiten ditugu. Dena den, egia da udaran martxa handiagoa izaten dela eta jotzeko aukera gehiago izaten ditugula. Azken asteotan, jada, batzuk izan ditugu; esaterako, Beasainen, Irunen, Tuteran eta Katalunian [azken biak elkarrizketa egiterako orduan egin gabe zituzten]. Hemendik aurrera, Lasarte-Orian jotzeaz gain, Euskal Herriko zenbait festatan jotzeko parada ere izango dugu.

Abuztuan 30 urte beteko dituzue taula gainean.

Eta urtemuga berezia baliatuta, zerbait berezia egin nahiko genuke.

Ospakizun bira egitea da gure asmoa; egitea gustatuko litzaziguke, baina, egia esan, ez dugu ezer lotu oraindik. Abuztuan aretoak ez dira libre egoten, eta ez dakigu zein formatutan ospatuko ditugun 30 urte hauek. Halere, lotu ahala, jakinaraziko dugu.

Bestalde, datorren urteko udaberriari atera nahiko genuke disko berria. Beraz, horrekin, ateratzen zaizkigun kontzertuekin eta urtemugan egin

"BATEZ ERE PLAZETAN, JENDE DEZENTE BILTZEKO GAITASUNA DUGU ORAINDIK"

genezakeenarekin badugu nahiko lan.

Azkeneko diskoarekin antzokietatik bira egin zenuten. Sorpresa bereziren bat gorde duzue disko berrirako?

Maitasunari Pasioa diskoarekin aurkezpen-bira berezia egiteko beharra sentitu genuen. Egindako beste lanekin alderatuta, antzokietara bideratzeko egokiagoa zen, eta, horregatik, formatu hori eman genion. Halaber, zaleek ere horrelako zerbait ikusteko gogoz zirela nabaritu genuen.

Datorren urtean kaleratuko dugun diskoak, berriz, betiko formatua izango du; indartsuagoa izango da, eta ohi bezala aurkeztuko dugu.

Gustora zaudete antzokietan emandako ikuskizunekin?

Pozik gaude, eta uste dut bira hau guretzat oso positiboa izan dela. Egia esan, ez genekien zer nolako formatua eman kontzertuei. Kanta lasaiagoak izanik, ikusleak jesarrita egon zitezkeela bururatu zitzaigun. Gehienbat, hortik atera zen modu berriari aurkezteko ideia. Zaila izan zen hasieran guretzat tokia zuten antzokiak topatzea, baina lehenengo data itxi eta berehala lortu genuen bira osatzea.

Zer moduzko harrera izan zuten kontzertuek?

Lehenengo kanta jotzeari ekin aurretik, ez genekien zer aterako zitzaigun. Jasotako txalozaparradak indarra eman zigun hurrengo kantetan, eta natural jo genuen kontzertua. Aurretik uste baino bereziagoak eta indartsuagoak izan ziren.

Gainera, aukera berezi hau baliatu genuen normalean jotzen ez ditugun zenbait abesti berreskuratzeko, hala nola, *Gautxorria*, *Eskutitza* eta balada



Aitor Gorosabel, elkarrizketa egin aurretik. TXINTXARRI

moduko beste batzuk. Ohikoa baino protagonismo handiagoa eman genien pianoari eta kitarra akustikoei ere. Formatua lasaiagoa zirudien arren, oso kontzertu indartsuak izan ziren. Horrek nolabait harritu gintuen.

Zuentzako berezia izango zen hainbeste urteren ostean formatua aldatzea. Bai, eta, aldi berean, uste dut jendeak oso era berezian jaso

tsst

Tel. 943 361 740 • www.tsst.info

Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta erosoa



Ondo pasa herriko jaietan!





Izan ere, zenbait aretotan sartzetik ere ez dute.

Su Ta Garren kontzertuetan ohikoa da adin guztietako zaleak topatzea.

Duela gutxi Beasaingo jaietan jo genuen. Denetarik zegoen bertan: 16 urte inguruko nerabeak, 30 urteren bueltan daudenak eta zaharragoak ere. Egia da, plazetan batez ere, jende dezente biltzeko gaitasuna dugula oraindik ere. Halere, aretoetan ez da beti horrela gertatzen. Ordainpeko kontzertuak ikusteagatik, lehen baino ohitura gutxiago dago gaur egun. Halakoetan, publiko zaharrago izaten dugu. Ekonomiak ere zerikusia izango zuen horretan. Izan ere, gazteek dirua gero eta gehiago neurtu behar badute, normala da plazan jotzera itxarotea.

Antzokiak, herriko festak, jaialdia, aretoak... Formatu guztietan eskaini dituzue kontzertuak. Non aritu zarete erosoan?

Antzokietan, hasiera batean, ez genekien nola suertatuko ziren emanaldiak, baina oso eroso izan gara. Beldur ginen gure musika ozenegi ez ote zen aterako antzokietako akustika berezian. Oso berezia izan zen. Ez gaude ohituak abestien arteko tarte horretan isiluneak egitera, txalo gehiago egiten dute ikusleek... Jendeak antzokiari errespetu handiago dio, eta oholza gainean hori nabari da. Dena den, eszenatoki bakoitzak baditu bere berezitasunak. Gaztetxeen berotasunean, eszenatoki handietan ikusleak zurekin badaude... denetan gozatzen dugu. **Hasi zarete lanean hurrengo diskoari begira?**

Bai, duela gutxi hasi gara. Zerbaitez ezberdina egin izanak ere indarra eman digu lanean jarraitzeko,

eta kanta berriak sortzeari ekin diogu. Dozena erdi inguru idatzi ditugu jadanik, nahiz eta horietako asko oraindik zirriborroak diren. Esan bezala, udaberriaren kaleratzeko asmoa dugu. Tarte eskaintzen diogu, baina zuzenekoak alde batera utzi gabe.

Aldaketaren bat izango da uda honetako kontzertuetan?

Denbora dezente daramagu kanta-zerrenda berarekin lanean, eta baliteke datozen emanaldietan zertxobait aldatzea. Dena den, arestian aipatutako urtemuga-bira hori eginez gero, beste buelta bat emango genioke zerrendari.

Estudioko hamaika disko egin ostean, kontzertuetako kanta-zerrenda hautatzea ez da erraza izango.

Saiatzen gara eroso sentiarazten gaituzten kantak jotzen. Badakigu, dena den, *Mari-k* edo *Jo Ta Ke-k*, adibidez, ondo funtzionatzen dutela, eta ezin ditugu bertatik kendu. Beste batzuk, berriz, sartu eta ateratzen ditugu kontzertuak joan eta kontzertuak etorri. Halere, ez dugu inoiz sekulako aldaketarik egiten. Abesti batzuk baztertuago geratu dira, bere garaian jo eta pixka bat hotz utzi gintuztelako.

Agian, berreskuratuz gero, harrera beroa izan eta sorpresa polita jaso genezake. Pasa izan zaigu. Baina, oro har, horrela ibiltzen gara, kanta asko aldatu gabe. Zentzu horretan segurura jotzen dugu.

"GAZTETXOAK GINENEAN EDOZEIN KONTZERTUTARA JOATEN GINEN, ORAIN EZ DAGO OHITURARIK"

Bestalde, ez dakit nazioarteko taldeek nola egingo duten. Baina pentsatzen dut zerrenda finkoa edukitzeak segurtasuna ematen diola taldeari. Hartara, ideiak garbi izanda, emanaldi osoagoak ematen ditugu.

Dena den, aspaldian jo gabeko abesti batzuk berreskuratuz dituzue.

Bai, esaterako, *Zure Aurrean Makurtzen Naiz* antzokietako biran sartu genuen, eta gerora egindako kontzertuetan zerrendan mantendu dugu. Egia esan, pena ematen du *Begira* edo *Geroaren Hazi Heziak* kanpoan lagatzea, eta, horregatik, kenduz gero handik gutxira sartzen ditugu berriz. Gainera, disko berrietako abestiak ere ez ditugu baztertu nahi.

Diskoak grabatzeko prozesua aldatzen zoazte?

Azkeneko diskoetako maketak lokalean landu ditut gehienbat, ordenagailuaren laguntzaz. Bere alde onak baditu, grabatzen zoazen heinean zenbait xehetasun finkatzeko aukera ematen dizulako. Halere, oraingoan nahiago izan dut, sortzeko orduan abiadurari gehiegi ez erreparatzea, lokalean edo etxean egin arren. Hau da, besteak beste, klaketak eta metronomoak aintzat hartu gabe idatzi ditut lehenengo zirriborroak.

Egia esan, samur doa prozesua. Abestiarekin pozik egon behar dut lokalean aurkeztu aurretik. Gerora, kideek egindako lanarekin, kantek itxura osoagoa hartzen dute, zenbait aldaketa jasatean. Horrela lan egiteak on egin digula uste dut.

Su Ta Garrek hasieratik jorratu dituzue gai sozial eta politikoak abestietan.

Horetako askok gaurkotasan handia izaten jarraitzen dute. **Etsigarria da?** Bai, bada etsigarria. Eta okerreana da *Nazka* bezalako kanta batzuk

sortu genituen garai horretan gaur baino beldur gutxiago genuela. Bazirudien borroka armatuaren amaierarekin bat abesti batzuek zentzua galdu zezaketela, baina ikusi ahal denez, euskal gazteriak mehatxatuta jarraitzen du. Espainiar nazionalismoaren gorakada honekin, beldurra ematen du gai batzuk erabiltzea. Evaristo [La Polla Records eta Gatillazo taldeetako abeslaria] zigortu dute, eta rapero katalan batzuk kartzelan sartu nahi dituzte.

Azken finean, zenbait abesti jotzeak lehen baino beldur handiago ematen du, eta, horregatik, kanta horiek inoiz baino gaurkotasan handiagoa dute. Eta, zorritzarrez, ez dirudi zentzua galduko dutenik.

Nola ikusten duzu euskal musikaren esena gaur egun? Zer somatzen duzu faltan eta zein indargune ikusten dizkiozu?

Oso anitza da, eta hori oso pozgarria da. Hau da, estiloei dagokienez, aniztasun handia dago. Era berean, maila handia dagoela esango nuke. Alde txarrak, berriz, betikoak. Merkatua ez da oso handia, kontzertuak antolatzea garesti ateratzen da... Bestalde, jendea erakartzeko indar handia duten taldeek ez dute arazorik aretoak betetzeko, baina ezagunak izanda indar gutxiago dutenek zaila dute aurrera ateratzea. Zer esanik ez, ezagunak ez direnek. Gaztetxoak ginenean edozein kontzertutara joaten ginen, eta gaur egun, agian, ez dago hainbesteko ohiturarik.

Talde gazteei kosta egiten zaie ateratzea, baina badira batzuk arrakasta izaten hasi direnak, Huntza edo Izaro, adibidez.

zuela. Gure betiko jarraitzaile asko bertaratu ziren, eta ohiko kontzertuetan baino adin-nahasketa handiagoa nabaritu nuen. Gurasoak seme-alabekin joaten ziren, eta erdibideko asko ez bazeuden ere; polita izan zen publiko anitza ikusi ahal izatea. Normalean baino lehenago taulagaineratzeko aukera izan genuen -20:00ak aldean-, eta haurrak etorri ahal izan ziren.

ETXEZARRETA HARATEGIA

- Bertako okela
- Urdaitegia
- Eramateko janaria

Ondo pasa festetan!!

Hipodromo Etorbidea, 2 - Tel. 943 361 379 / 610 441 544 - LASARTE-ORIA

"Zalaparta egin gabe lanean aritu gara egunero"

APOLONI OTXANDORENA ETA JESUS MARI EGIZABAL IAZKO PATXINTXI SARIAK
Gaur urtebete urduri bazeuden ere, pozez oroitzen dute iazko sanpedroetan bizitakoa. Urte luzez egindako lanaren aitortza jaso zuten Ttakun Kultur Elkartearen Patxintxi sariekin

Maddi Noriega

Jesus Mari Egizabalek (Lasarte-Oria, 1938) eta Apoloni Otxandorenak (Igoa, Nafarroa, 1930) gauza asko partekatzen dituzte. Biek ia bizitza guztia eman dute Lasarte-Orian, eta las eskerga egin dute herriarentzat. Iaztik, ordea, badute beste elkargune bat: Ttakun Kultur Elkarteak banatutako Patxintxi saria irabazi zuten, 65 urtez gorako pertsona maitagarrienak izateagatik.

San Pedro eliza pareko etxea izan da Egizabalen jaioleku. Gaztetatik Intza pilota elkarteak partidak antolatzen hasi, eta hamaika lanetan aritu da. Hamabi urtez berriemaita lanetan aritu da, eta Añorgako Rezolara joan

zen gero 16 urterekin. Ezkonduta, banketxe batean hasi zen lanean, eta hori izan du 40 urtetan ogibide, erretiroa hartu duen arte. Bere jardunak, ordea, ez du etenik izan gaurdaino: Danok Kide Guraso Elkarteak arduradunetako bat da.

Otxandorena ere langile fina izan da gazte-gaztetatik. 8 urterekin etxea utzi behar izan zuen, etxeko langile aritzeko Nafarroan. Alemaniako familia baten etxeko seme-alabak zaindu zituen ere Hernanin. Ederki gogoratzen ditu garai haiek: "Gogoratzen naiz nola Jesus Mariren osabak autoa uzten zion nire senarrari, ni Hernanira bisitatzera joateko".

Ezkontzerako Oriara joan ziren bizitzera, eta hango

bizipenak ere ez ditu ahaztu. Brunet ehungintza fabrika martxan zegoen auzoan, eta "guztia" haiena zela azaldu du Otxandorenak: "Etxe guztiak Brunetenak ziren, eta ez ziguten zentimorik kobratzen horietan bizitzeagatik". Bertan bizitzeak bazituen, ordea, zenbait baldintza: "Ez zegoenez nahiko argindar lantegia eta etxeak hornitzeko; 09:00etan argia moztzen ziguten, eta 18:00ak arte ez zen argirik bueltatzen".

Orian 21 urte egin ostean, Zabaletara lekualdatu zen senarrarekin, eta orduz geroztik, 43 urte daramatza bertan.

Egunerokotasunean konpromiso handia izan dute bi lasarteoriarrek, eta "beti laguntzeko prest" egon dira.



Apoloni Otxandorena eta Jesus Mari Egizabal iazko Patxintxi Sariak. TXINTXARRI

Une garrantzetan ere indarrak nondik atera dituen ez daki Otxandorenak; semea urte luzez izan du preso, eta urte horietan guztietan espetxeratuen giza eskubideen aldeko borrokan ez du etsi. Borroka horretan ere senarra hil arren, kartzelatutako semearen alde lanean jarraitu du.

Herritarren maitasuna

Lasarteoriarrek dieten maitasuna ezin daiteke uka; herriarentzat eginiko lana aitortu zieten iazko sanpedroetan, Patxintxi saria jasotzean.

"Ezustean" harrapatu zieten izendapenak. Aukeratuak

izateko arrazoirik ba ote zuten galdetu zioten euren buruari, eta sorpresa izan bazen ere, ohartu ziren egindako lan guztiaren aitortza zela jasotako oroigarria. "Zentimorik jaso gabe eta zalapartarik egin gabe, egunero-egunero aritu gara lanean".

Pozarren jaso zuten saria, batez ere jakitean elkarrekin

"ZERGATIK AUKERATU GINTUZTEN GALDETU GENION GURE BURUARI. SORPRESA POLITA IZAN ZEN"



Ondo pasa San Pedro jaietan!!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Carrefour
express

aukeratuak izan zirela: "Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta are pozgarriagoa izan zen jakitea elkarrekin egongo ginela".

Egun "berezia" bizi zuten iazko ekainaren 28a: "Oso polita izan zen, baina oso urduri geunden. Beldur apur bat ere ematen du hainbeste jenderen aurrera ateratzeak".

Arnasa "kostata" hartu, eta Egizabal ausartu zen udaletxe azpian bildutakoei hitz batzuk irakurtzera. Apoloni, ordea, emozioei ezin eutsita "hitzik gabe" geratu zen. Behin "tragoa" pasata, urduritasunak baretu eta egun "ederra" pasa zuten.

Orduko eta oraingo festak

Alde nabarmena ikusten dute garai bateko eta gaur egungo festen artean. Oriako festak erreferentziatza hartu, eta irribarretsu gogorarazi dizkiote elkarri garai haietako ospakizunak. "Oriak bere nortasuna zuen, eta festa propioak izaten ziren", azaldu du Otxandorenak. Horietako ekintzak antolatzen ere makina esfortzu eginak dira bi lasarteoriatarrek.

"OSO ONDO IKUSTEN DUGU ADINEKO HERRITARREI EGIN DUTEN LANA AITORTZEA"

Nola ez, Sorgin Dantzarekin hasi dute errebasoa. Auzoko festen oinarri da dantza, bertan sortu baitziren doinuak eta partiturak. Horren sortzaile ere izan zen Jose Luis Orotegi, Apoloniren senarra zena. Sortze urteetan Oriandantzatzaren bazuten ere, Donostian ere emanaldiren bat edo beste egin zutela kontatu du Otxandorenak.

Zinta lasterketak ere bazuen arrakasta Oriandantzatzaren gainean jarri, eta eskuan makilatxoa hartuta, zintatik zintzilik zeuden uztai txikietan sartu behar zuten. Zinta ateratzea lortzen zutenek saria jasotzen zuten. Kontatu du Otxandorenak nola aritzen zen uztaiak zintan josten.

Beste ezberdintasunik ere ikusten dute: "Lehen auzotarrek antolatzen zuten dena, gaur egun, berriz, badago herritarren inplikazioa, baina kanpoko gauzak dira asko". Parrandarako orduak ere aldatu direla diote: "Lehen egunez egiten genuen festa, orain ordea, gauak indar handia du".

Meza nagusiaz ere ez dira ahaztu. "Berebiziko garrantzia zuen ekitaldiak". Elizako koruak abesten zuen, eta "oso ekintza jendetsua" izaten zen. Egungo San Pedro eguneko elizkizunera "jende asko" joatean den arren, beherakada nabarmena antzematen dute: "Ekintza erlijiosoa izanik,



Familia eta lagunaren goxotasuna izan zuten iazko San Pedro eguneko ekitaldian TXINTXARRI

jaietako egitarautik ere kendu dute".

Festak, gazteei zuzenduta

Erretiroa hartutako en gozamenerako izaten dira zenbait ekintza, baina hitzordu "puntuak" direla nabarmendu du Egizabalek. Izan ere, festak "jende gazteari zuzenduta" daudela uste dute.

Egoera hori iraultzeko Patxintxi sariak banatzen hasi zen Ttakun. Zaharrek lasarteoriatarrei eskainitakoa aitortu eta adin artekoen harremanak sustatzeko ekintza arrakastatsua bilakatu da. "Oso ekintza polita da, erakusten da adinekook aritu garela han eta hemen lanean".

Herritar maitagarrien txapela jantzi dute merezimendu osoz

Otxandorenak eta Egizabalek. Urte luzez ingurukoak maitasunez zaindu dituztela ezin daiteke uka; horrela jaso dute TXINTXARRI aldizkaria ere.

Aurtengo Patxintxi lehiaketa zabalik dago oraindik. Hautagaiei bozka emateko aukera dago astelehenera arte. Orduan jakingo da zeintzuk diren 2018ko zahar maitagarrienak.



Okela
HARATEGIA

- ARTISAU URDAITEGIA
- ETXEKO JANARIA
- BERTAKO HARAGIA



Ondo pasa San Pedro jaietan!

Ekainaren 27tik 30era (biak barne), 25 euroko erosketagatik jabugozko dozena bat kroketa opari!

Kale Nagusia 41, 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 36 39 12
Nafarroa kalea 3, 20230 LEGAZPI • Tel.: 943 73 18 25
(Maialen) Karmelo Etxegarai 10, 20018 DONOSTIA • 943 31 40 43 (Ilgandetan irekita)

"Pertsonak gara maskara azpian"

Urtebeteko itxaronaldiaren ostean, Lasarte-Oriako buruhandiak irrikitan daude San Pedro jaiak hasi eta herriko gaztetxo bihurriak egurtzeko. Helduak ere ez dira salbatuko; desfilean harrapatzen dituzten guztien atzetik joateko prest daudela ziurtatu dute

Maddi Noriega

Urtebete itxaron dute Lasarte-Oriako buruhandiek gaztetxoak atzetik lasterketa irten, eta bizkarrak berotzeko. Iristear dira sanpedroak, eta maskuriak eskuartean hartu eta irrikitan daude egurra ematen hasteko. Aitortzen dute, ordea, herriko gaztetxoek "asko zirikatzen" dituztela, eta horiek guztiak harrapatu eta astindutxo bat emateko prest daude.

Sasoi ederrean agertu dira TXINTXARRI-rekin izan duten hitzordura; nabari da entrenatu

direla festa egunetan korrika saioak egiteko; ez die haurrik alde egingo. "Beti ihes egiten digu hurren batek, gurasoen babesa bilatzen dute, eta ez da hain erraza izaten denak harrapatzea".

Fisikoki ongi egotea beharrezkoa dela nabarmendu dute. "Ez da buruhandi gisa ateratzeko entrenatu beharrik, baina kontutan hartuta kalera ateratzen garenean egin behar izaten ditugun korrika saioak, egoera fisiko ona izatea ezinbesteko da".

Lasarte-Oriako gaztetxoak "ausartak" dira, buruhandien esanetan. Asko dira eurekin korrika, jolastera ateratzen direnak; baina badira ere ikusi bezain laster beldurtuta alde egiten dutenak. Horiengana ere gerturatzen dira buruhandiak: "Beldurtuta ikusten ditugunean, goxo joaten gara haiengana, eta burukoia kenduta, erakusten diegu ez garela gaiztoak; pertsonak gaude maskaren azpian".

Maskuriarekin bizkarrak berotzen dituzte, bai, baina ez



Buruhandiak prest dira Lasarte-Oriako kaleetan barrena gaztetxoak harrapatzeko. TXINTXARRI

dute min emateko intentziorik. Maskuriek gorputzarekin talka egitean ateratzen den soinuak bestelako itxura ematen du.

Jockeyak azaldu du ez direla inorri min ematera ateratzen, nahiz eta guztiek aitortu duten

karetaren azpian egonda errazagoa dela ezaguneri kolpeak ematea: "Ez dakite nor doan maskararen azpian, eta hor aprobetxatzen dugu kolpe indartsuagoak emateko; tentagarriak izaten dira horrelako uneak".

**INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA**

Ondo pasa San Pedro jaietan!

Ezagutu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behea - Tel./faxa: 943 36 05 91
Lasarte-Oria

ANTONIO URRUZOLA

Ondo pasa festetan!

AROSZTEGIA

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa 3. pabilioia, USURBIL
Tel./Faxa: 943 37 64 15 • Mobila 687 845 597
carpinteriaantoniourruzola@gmail.com

**TXINTXARRI
PUBLIZITATEA:**

San Pedro osteko zenbaki berezia
UZTAILAREN 6AN

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66

IRIGOYEN

OPTIKA

Ondo pasa San Pedro jaietan!!

Eguzkitako betaurrekoetan **DESKONTUAK**

Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47



Maskurikaden bidez estresa askatzen duten galdetuta, ezetz erantzun du Txirrindulariak: "Ateratzen garen bakoitzean egin behar ditugun korrika saioekin askatzen dugu estres guztia, baina inoiz ez gaztetxoei kolpatzen".

Aurten egun gehiagotan irtengo dira herriko kaleetara; egunero arituko dira gazteen bizkarrak astintzen. Festen azken egunean, adibidez, ez dira inoiz irten buruhandiak, baina aurten igandean ere izango da horiekin aritzeko aukera. Konpartsa "indarra hartzen" ari dela azaldu du Sergio Lucas taldeko antolatzaileak.

Geroz eta presentzia gehiago

Bederatzi laguneko lantaldea dago konpartsaren atzean, eta horietako bakoitzak zerbait badu, taldearekiko "konpromisoa" da. Gazteak dira oso, eta parradarako gogoia dute, baina uztartzen dituzte jai eta buruhandien kalejira: "Buruhandien azpian atera behar dugulako ez gara mugatzen parrandan ateratzera. Berdin berdin egiten dugu parranda, baina hurrengo egunean hutsik ez egiteko konpromisoa dugu".

Bederatzikoteko batzuk egin dute lasterka buruhandien aurrean. Haatik, aurrean aritzeko adina pasa zaienean, orain eurak dira umeen atzetik

aritzen direnak. Baten batek aitortu du txikitan gorroto izan dituela, eta orain, aldiz, oso gustuko duela buruhandizatea.

Aurrekonturik ez

Aurtengo sanpedroetan ez dugu Sifoitxo kalean ikusiko. Izan ere, buruko maskaraz gain, ezinbetsekoa du gorputzeko soinekoa. Hori, ordea, erabat zaharkituta dago, eta aurrekontu faltagatik ezin izan dute aurtengo jaietarako berritu. "Erregeari eta erreginari bai, jantziak zertxobait berritu zaizkie. Baina gainerakoak datorren urtean egin beharko ditugu", azaldu du Lucasek.

Antolatzaileak, baina, badu beste nahi bat. Buruhandiak eta erraldoiak herritarrei gehiago gerturatzeko desfileen irteera lekua aldatzea gustatuko litzaioke. "Irtten aurretik, herrigunean erakusleihen batean erakutsi nahiko genituzke buruhandiak eta erraldoiak, herritarrek ikus ditzaten eta, bide batez, festaren parte egin daitezen".

San Pedro jaietako buruhandiak



TXIRRINDULARIA



JOCKEYA



GIZAKI PRIMITIBOA



AUTO GIDARIA



GOLF JOKALARIA



AHARIA

JAIETAN, ONDO PASA!!



Jon Tecedor kirolaria gogoan

Ekainaren 14an hamar urte bete ziren Jon Tecedor lasarteoriatarra istripuz zendu zela. Halterofiliako Espainiako txapeldun izan zen hamabi alditan, eta, besteak beste, Sydneyko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen. 2009an San Pedro Jaietako omendua izan zen

Txintxarri

15 urterekin halterofilia egiten hasi zen Jon Tecedor Aginaga (Lasarte-Oria, 1975) herritarra. Olinpiar Jokoetara joatea zen bere ametssetako bat, eta 2000. urtean bete zuen; Sydneykoetan parte hartu zuen. Orain hamar urte hil zen motor istripuan.

Tecedorrek Lasarte-Orian Karmelo Zarzueloren eskutik eman zituen bere lehen pausoak halterofilian. Baina lan kontuak medio, hark ezin izan zuen Tecedorren prestaketarekin jarraitu, eta 18 urtez bere entrenatzaile izan zen Battis Kortajarenarekin lan egiteko gomendatu zion. Orduan Villabonara joan zen entrenatzera. Indarrak taldeko Manu Olaizolak ere lagundu zion herritarari.

18 urte zituela, Madrilgo Blume Errendimendu handiko zentrora joateko deia jaso zuen. 15 egunetarako zihoan, baina sei urte egin zituen bertan. Ondorioz, Madril eta Lasarte-Oria artean bizi izan zen.

Atlantako Olinpiar Jokoetan parte hartzeko txartela galdu zuen, baina 25 urte zituela, 2000. urtean, Sydneyn lehiatu zuen.

395 kilo jaso zituen orduan, bere marka baino bost kilo gutxiago. Hamalagarren postua eskuratu zuen, baina dopin kasuak zirela eta, gerora hamaikagarren izatera iritsi zen.

TXINTXARRI-k 2000ko urrian argitaratutako elkarrizketan, Tecedor pozik agertzen zen egindako lanarekin. Olinpiar Jokoen aurretik nazioarteko sailkapenean hemezortzigarren postuan zegoen. Lehiatu ostean, lau postu aurreratu zituen.

Sydneytik bueltan, modu profesionalean kirola uztea erabaki zuen. Entrenatzen jarraitzen zuen, eta hainbat titulu irabazi zituen.

2008ko ekainaren 14an, motor istripua izan zuenean esate baterako, Euskal Herriko txapelketan parte hartu behar zuen. Egun, Tecedorrek ezarritako 105 kilo baino gehiagoko pisu olinpikoko eta arrankadako Espainiako errekorrak indarrean daude.

2009an San Pedro jaietako omendua izan zenean, TXINTXARRI-k argitaratu zuen bezala, kirolari bat baino gehiago zen Tecedor. Bihotz onekoa zen, beti laguntzeko prest.

Kortajarenak azpimarratu bezala, lehiatzean ez zuen areriorik ikusten.

Bere familia oso garrantzitsua zen beretzat. Horregatik, Madrilgo urteak oso gogorrak egin zitzaizkion Tecedorri. 2008. urtean ezkondu zen bere neskalagun Nuria Vegasekin. Nahiz eta lehiaketetan herrialde ezberdinak ezagutu, bidaiatzea zen bere grina. Dantzatzea ere gustuko zuen, Vegasen hitzetan. Horregatik, Tecedorren motor ezbeharra latza izan zen ezagutzen zuten guztientzat.



Jon Tecedor kirolaria nazioarteko pisu jasotzaileen artean lehiatu zuen. N. VEGAS

Omenaldi hunkigarria Zizurkilen

Larunbatean, ekainaren 16an, Jon Tecedorri omenaldi xumea egin zion Danok Kide Danena Halterofilia elkarteak, Zizurkilgo Intxaur kiroldegian. Lehenik master mailako halterofilia erakustaldia egin zen. Eguerdian, omenaldi hunkigarria egin zen. Bertan izan ziren Lasarte-Oriako kirolariaren bere senide eta lagunak. Bere emazte Nuria Vegasek esker hitzak izan zituen guztientzat.



AURRI

aldika 
produktu bereziak

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 37 70 89 • aldika@euskalnet.net

*Ondo pasa
San Pedro jaiak!*





*Ondo pasa
San Pedro jaietan!*

Uraitz, S.L.



**Igeltseritza
Orokorra**

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAIL-
LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BO-
TATAKO ARTELAZKIA) ETA
S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU
GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA
DUTXA EXTRALAUARENGATIK
EGUN BAKAR BATEAN

Telefona

693 05 93 92
943 56 66 40

uraitz@uraitz.com
www.uraitz.com

BULEGOA:
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

Asko disfrutatu herriko jaietan!

Balerdi
harategiak



Bertako haragia eta artisau urdaitegia

LASARTE-ORIA

Kale Nagusia 36-38 • Tel. 943 37 04 46

Geltoki kalea 19 • Tel. 943 37 65 85

Kale Nagusia 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI

Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82


DONOSTIA

Bermingham beheka 31 • Tel. 943 28 23 23

ZORION AGURRAK



Izaro
Zorionak zure 6. urtebetetzean printzesa! Muxu asko familiaren partetik.



Alex
Zorionak Alex zure 4. garren urtebetetzean. Askok asko maite zaitugu. Muuuuuuaakkkk!!



Aray
Zorionak txapelduna zure 7. urtebetetzean, zure familiaren partez! Askok maite zaitugu. Paaaa!



Lorea
Zorionak printzesa zure zazpigarren urtebetetzean, aitatxo, amatxo, eta Oihanaren partez. Askok maite zaitugu!!!



Mario
Zorionak txapeldun!! 8 muxu potolo familia osoaren partetik. Askok maite zaitugu!!

SAN PEDRO JAIK *txintxarri.eus*-en

Jarraitu San Pedro jaiak *txintxarri.eus* orrialdean eta sare sozialetan. Argazkiak, bideoak, jaietako berriak... Denetarik izango dugu gure orrialdean, baita zure argazkiak zintzilikatzeko aukera ere.

Txintxarri-n zure argazkiak

Txintxarri.eus-en argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak" aukera aurkituko duzu. Hori bai, lehenengo aldiz sartzerakoan erabiltzailea erregistratu beharko da, pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzue jarraian.

Baina ez da hau jaietan atera ahal dituzun argazkiak *txintxarri*-n argitaratzeko modu bakarra. Zure argazkiak *txintxarri@txintxarri.eus* helbidera bidaliz gero, edo 688 683 510 zenbakira whatsapp bidez ere argitaratuko ditugu. Instagram eta Twitter sare sozialetan #sanpedroak2018 traolan nere partekatu ditzakezu.

Gainera, uztailaren 4a asteazkena baino lehen jasotzen ditugun argazkiak uztailaren 6an, San Pedro jaietako argazkiekin osatutako txintxarri berezian argitaratuko ditugu. Animatu eta parte hartu!

GUTUNAK

Eskertza**DBH 3KO IKASLE ETA GURASO TALDEA**

Ekainaren 9an, Landaberri ikastolako jaialdia ospatu da. Honekin lotuta, Oriarte institutuko DBH 3ko gazteek eta gurasook parte hartu dugu (aspaldiko ohiturei jarraituz), horregatik lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten guztiei, bestela hau guztia aurrera eramatea ez zelako posible izango: Iñaki Pikabea Landaberriko atezaina, Landaberri ikastola, Oriarte institutua, Landaberri guraso elkarte, Oriartekide guraso elkarte, Lezoko udala, Oiartzungo udala, Usurbilgo udala, Lasarteko udala, Iñaki Urruzola DJ, Asier Arteaga pelotaria, Beltzak errugbi taldea, Ostadar kirol elkarte, Ttakun kultur elkarte, Xabi Alonso futbolaria, Aldika komertziala, Balerdi harategia, Larrañaga harategia, Etxezarreta harategia, Goxogi okindegia, Alda arropa denda, Dulce tentación

goxoki denda, Berasategi kafe denda, Orbela belardenda, Andoni Segurado masajea, Abreu bazarra, DR jolas denda, Bolboreta goxoki denda, Librería Maite, Decathlon...

Akats zuzenketa**EH BILDU**

Egun hauetan EH Bilduk 2017ko udal aurrekontuen exekuzio mailari buruz buzoneatu duen eskuorrian oker bat eskapatu zaigu azkenengo paragrafoan. Bertan, Ahal Du Lasarte-Oria Puede alderdiak 2017ko Udala Aurrekontuen aldeko bozka eman zuela esaten da. Ez da horrela, ez zuen aldeko bozka eman. ADLOP abstenitu egin zen. 2016ean izan zen aldeko bozka ematea, eta hortik gure nahasketa. Zintzoki akatsa onartu eta sortutako kaltearengatik ADLOP-ri barkamena publikoki eskatzea dagokigu eta horrela egiten dugu ohar honen bidez.

HILDAKOAK

Vicente Vázquez Rodríguez. Ekainaren 18an.
Mª Carmen Uspiriano Olasagasti. Ekainaren 18an.
Pepe Muñoz Cuenca. Ekainaren 15an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 22	DE MIGUEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 23	ACHA-ORBEA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 24	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 25	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 26	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 27	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 28	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
Ostirala, 29	URBISTONDO	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21
Larunbata, 30	URBISTONDO	
Igandea, 1	URBISTONDO	
Astelehena, 2	ORUE	
Asteartea, 3	LASA	
Asteazkena, 4	DE MIGUEL	
Osteguna, 5	GIL	

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Sorgin Dantza entsegua ekainaren 26an

Sorgin Dantzako antolatzaileek jakitera ematen dute, ekainaren 26an, asteartea, entsegua izango dela.

Ohi bezala saioa arratsaldeko 20:00etan hasiko da Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Landaberri-Garaikoetxea ikastetxean egingo da.

Kirol instalazioen ordutegia San Pedro jaietan

San Pedro jaietan kirol instalazioek ordutegi berezia izango dute.

Ekainaren 28an, osteguna, igerilekua 9:00etatik aurrera itxita egongo da; Maialen Chourraut kiroldegi osoa, berriz, arratsaldean itxiko dute.

Ekainaren 29an eta 30an, ostirala eta larunbata, Maialen Chourraut kiroldegi itxita egongo da.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, ekainaren 25an eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Dantza ikastaroetako aurrematrikularako azkene gona

Lasarte-Oriako Kultura sailak eskaintzen dituen dantza ikastaroen aurrematrikula garaia gaur, ekainaren 22an amaituko da.

Interesatuak aurreinskripzioa Manuel Lekuona kultur etxean egin behar dute.

Ondo pasa
San Pedro jaietan!



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA



ERAKUSKETA, DENDA ETA BULEGOA

Geltoki kalea 21 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

info@illarreta.com



TAILERRA

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943 33 17 54

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

LUIS CAR

autobusak

Ondo pasa San Pedro jaietan!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak



GORRA SAN PEDRO JAIAK!

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

OLA KALEA, 10
943 36 63 77